

Arnaldo Patterson, salsa irakaslearekin elkarrizketa

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko maiatzak 21


193. zenb.



Kirolak
**Mondra
igoera
fasera**

Bosniarrak gure artean

**Itzuli nahi
baina ezin**




Parlance

IRLANDA

UDAKO IKASTAROAK

(uztail, abuztu edo irailean)



- * **Gazteentzako ikastaroak**
 - Irteera Arrasatetik bertatik arduradunarekin
- * **Helduentzako ikastaroak**

Informazioa

PARLANCE
Ferrerias 11, behea
Tfnoa: 77 06 83

LORAMENDI KIROOLAK

• Reebok

• Saucony

• Adidas


• Rombo

• Joma

• Ellesse

• John Smith

Gertu dauzkagu zuretzat
modelo berriak



Entrenamendua • Lehiaketa • Aisialdia

• Nike

• L.A.Gear

• Avia

• Asics

• Rox

• Converse

• Mito

Maiatzaren 1a Plaza ARRASATE Tfnoa: 79 97 24

Ikastolak hartu behar dugun erabakiaren aurrean hainbat erreflesio

Ikastolak, herri osoaren elkar lan amankomun eta kolaborazio espontaneotik sortuak izan dira, eta demostratu dugu gure eskola eraikitzeko gai izan garela. Sorreatik publikoak izan bagara, gure eguneroko praktikan argi geratu da gure bokazioa, alde batetik gure patrimonio guztiaren jabea herriaren ordezkari zuzena duen erakundeari pasatu diogu, hau da Udaletxeari, eta bestetik gure ikastola, herrian euskaraz hezi nahi izan duen guztiari irekita egon da eta dago, inor alboratu gabe, lekuko, Arrasateko auzo guztietan dugu presentzia.

Ikastolen mugimenduak piztutako zuziriari esker, guraso eta irakasle talde bat hasi ziren Eskola Transferituetako sarean, lan egiten eta sare hau euskalduntzeko asmoz.

Gaur egun dugun Eskola transferitua, jende multzo honi esker euskalduntzen joan da, Administrazioak eta Legeak atzetik joan dira, ez dute inolako aurrerapausurik egin eskola euskalduntzeko eta herriratzeko.

Eskola publiko eta gorputz dozentean legearen aurrean: Lege hau egin da ikastolen egoera "normalizatzeko" eta aukeratu behar

dugu edo Publiko edo Pribaturako bidea, eta gure proiektuak ez du tokirik oraingo sare publikoan gure nortasuna eta izaera mantenduz, behintzat.

Lege hauek aztertu ondoren pentsatzen dugu ez dutela bermatzen gure hezkuntz proiektuko bi ardatz nagusi: **euskalduntze arloan gaur duguna baino atzerago gelditzen da eta autonomia mailan, ezer garrantzitsurik erabakitzeko aukerak galtzen ditugu.**

Hemendik eta Federazioari ere honako eskaera hau luzatzen diogu:

Lortutakoa ez da nahikoa, helburua Euskal Eskola Berria eraikitzen joatea da eta horretarako helburu berdinekin lanean ari diren beste eskolekin elkarlanean hasteko bideak aurkitu eta bultzatu beharko ditu, lortu nahi dugun Eskola Berria denon lan-kidetzaren fruitu eta bilgune izango bait da.

Irakaslegoari begira: Funtzionariadoaren aukera aztertu dezagun, eskaintze diguten baldintza laboral pribilegiatu hauekin, Administrazioak langilegoa erabiltzen ahal du, bere helburuak transmititzeko eta ongi lotuak eduki ahal izateko.

Orain dugun proiektuan ere nahiko garbi gelditzen da gure lanpostuak ziur izango ditugula, gurasoek orain arte egindako aukera mantentzen duten neurrian.

Bakoitza gauden tokitik, denon indarrak batzeko garaia da, eta jarrera aktibo bat hartu eta gure asmoak gauza-

tzeko ditugun aukerak erabili behar ditugu, horrela benetan nahi dugun Euskal Eskola Berria eraikitzen joango garelarik.

Beraz, kontutan har dezagun gure botua ematerakoan **Ikastola dagoela jokuan** eta orain arte bezalako izaera mantenduz eta **ikastola guztiak denok batera jokatuz** lortu dezakegula gure proiektuak aurrera egitea.

Ikastola defenda dezagun, Euskal Eskola Berriaren oinarri bezala.

S.FRANTZISKO XABIER IKASTOLAKO IRAKASLE TALDE BAT

Gutun irekia SFX Ikastolako lehendakariari

Lehendakari jauna: Ikastolak bizi duen momentu garrantzitsu honetan, San Frantzisko Xabier ikastetxeko Lehendakariak izan garenok geure begirunea eta sostengua adieraztera gatozkizu.

Garai hartan utopia bat zirudien arren, euskaldunok jakin genuen, oztopo guztien gainetik, hezkuntz proiektu propioa martxan jartzen: ikastola. Gure herriaren nortasuna eta hizkuntza aitortu eta zuzpeltu egingo zituzten ikasketak burutzeko aukera eman zien ikastolak gure seme-alabei. Euskal Herrian, eta Arrasaten ere bai.

Hasieran, baldintza penagarrietan; gero, egoera normalagoan; baina, beti, gure

hezkuntz-proiektuaren norabide nagusiak geuk markatuz, beti gure hezkuntz-proiektua geuk gestionatuz. 26 urte lanean, lehendakari jauna, irakasle eta guraso orpoz orpo, beste hainbat herritarrekin batera, erdialdean eta auzoetan...

Badakigu historia aurrea doala eta jakin egin behar dugula geure burua denbora berrietara egokitzen; badakigu, baita ere, zerbitzu publikoa emateko jaiotze zela ikastola. Perspektiba berrien aurrean jarrera irekia izan behar du ikastolak eta, dagokionean, urratsa emateko prest egon: baina ez edozein preziotan. Urratsa eman, baina inolaz ere ez gure proiektua garantiaz ziurtatuko ez lukeen ikastolatik kanpo mamitu den beste proiektu bati geure nortasuna entregatuz.

Dekretu batek nahi digu etorkizuna markatu, orain: epea ere jarrita dago. San Frantzisko Xabier Ikastolan bizi behar izan dugun karguaren kontzientziatik, ondorengo hau adierazi nahi dizugu, lehendakari jauna: onar ezazu proposatzen zaigun "publikotasuna", Ikastolaren nortasuna eta hezkuntz proiektua babesteko bada; baina, horrela ezean, bazter ezazu zalantzarik gabe: ez zen Ikastola dekretuz jaiotze, ez du dekretu batek eraitsiko. Animo!

IKASTOLAKO LEHENDAKARIAK IZANDAKOAK

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK

77 05 65

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 - ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oñden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Beriso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Oñabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopia, Daniel Goikolea, Iban Astondoa, Haritz Larriaga, Cesar Cimiano, Leire Zubizarra, Koldo Zubizarra, Joseba Valles, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oriati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Luis F.

Eskola Publikoaren aldeko apustua

Erabakitzeke une garrantzitsura heldu gara, publikoa ala pribatua. Orainarteko egoera bukatu egiten da maiatzaren 25ean, hain zuzen ere.

Betidanik defendatu du gure ikastolak "publikotasuna" eta orain du benetako horren alde apostua egiteko aukera. Irakasle goaren gehiengo 70. hamarkadan finkatu zen, talde bat lehenago oraindik eta Eskola Euskaldun eta Publikoa lortzeko itxaropenean lan sakona egin du orainartekoan.

Eskola publikoa denon artean eta gure eguneroko lanaz gauzatu den proiektu bat dela badakugu. Orainarte izan dan bezala. Horren ondorioz, kontutan izan behar dugu gure bailaran azken urteetan "A" eredu (dena gaztelaraz euskara asignatura) ikasle faltagatik desagertu egin dela eta gorakad handia izan duela "B" ereduak (euskara eta gaztelera).

Ikastola aintzindari izanik euskara hutsezko irakaskuntzan eta ikusirik oraindik eskola publikoan aukera hau ez dela oso zabala publiko irakasleen ahaleginak bide horretan egon arren, izugarriko aurrerakada emango genioke gure herriko euskarari bere normalizaziorako bidean elkarlanean arituko bagina, debaldeko irakaskuntza eskainiz, herriko edozein haurrentzako irekia eta sekula dirua oztopo izango ez delarik.

Pribatua gelditu ezker, ondoto ordaindua izan behar da euskarazko irakaskuntza ikastolan eta ez da edozeinentzako izango. (Gaurko kuotaren batazbestekoa 2.600

pzta.) zein izango da gerokoa?

Nola lortuko dugu euskararen normalizazioa, ume guztiak eskolan ez badute aukera berbera?

Autonomia ere mantendu egingo genuke eskola publikoan, geure proiektu eskolarra aurrera eramateko eta eguneroko lanarekin gehiago lortzea ere posible ikusten dugu. Esperientziak badaude gure inguruan.

Irakaskuntzaren kalitatea gaur egungoa izango litzateke. Irakasle goaren berberetan mantenduko delako eta hau garantizatuta dago publikoko bidea hartuko duten ikastoletan.

Zein egoeratan daude irakasleak lege honen aurrean? Publikoko bidea hartzen bada irakasle bakoitzak orain duen lanpostua mantenduko luke garantiaz. Oposaketa mugatu eta espezializatuan parte hartzeko aukera "bakarra" izango luke.

Pribatua gelditu ezker, gelak mantentzen diren neurrian mantenduko dira lanpostuak. Tendentzia behar da doaz azken urteotan.

Publikoaren aldeko apostua egitera gonbidatzen zaituztegu gurasook zuen eskutan bait dago ikastolaren etorkizuna. Botuen 2/3ak erabakiko du. **"Momentu historiko baten aurrean gaude".**

S.F.X. IKASTOLAKO

IRAKASLEEN KLAUSTROAREN GEHIENGOA

Ikastola publiko ala pribatua

Denok dakigu noiz, zergatik eta nork sortuak diren ikastolak. Orduko egoera politikoaren eraginez, euskara eta euskal kultura zeharo baz-

terturi zeuden irakaskuntzan, bai publikoan, baita pribatua ere.

Horri erantzuteko herriak sortutako eskola da Ikastola. Ikastola berez herrikoia da eta publiko izateko nahia aldarrikatu du, baina administrazioak ez dio orain arte aukerarik eman; urteak dira horren atzetik gabiltzala.

Bitartean, lehenengo "Escuela Nacional"aren tajuera poliki poliki desagertu da eta bere ordezkari Eskola Publiko bat ari da finkatzen, egunetik egunera euskaldunagoa suertatzen dena jende gehiengoaren euskalduntze lana bere bizkar hartzen duena. Beraz, ikastolak ez du inolaz ere euskararen monopoliorik.

Azkenengo urteetan bi sare hauek borrokan egin duten Euskal Eskola Publiko eta bakar baten alde. Orain hemen ditugu "Euskal Eskolaren" eta "Irakasle goaren kidegoari buruzko" legeak. Bi lege hauek Euskal Eskola bat eraikitzeke bidea zabalitzen dute, zalantzarik gabe. Ikastola guztien proiektuak aurrera eramateko ahalmena ematen digute, beraien nortasuna galdu gabe eta gainera orainarteko irakasle goaren jarraipena ziurtatuz. Guraso edota irakasle bezala, oraingo Eskola Publikoa eta Ikastola ondo ezagutzen ditugu eta bien kalitatea eta hezkuntz-proiektuak ez ditugu zalantzan jartzen. Guraso moduan, egun batean gure seme-alabak San Frantzisko Xabier Ikastolan sartu genituen, hainbat gauza kontutan harturik: euskal eredu (D), publikorako joera (egun batean hortarako aukera izaki) eta kokapena.

Guk argi eta garbi ikusten dugu gure Ikastola eta Eskola Publikoa bategiteko aukera dugula, ezer galdu gabe. ez ditugu ulertzen zen-

bait alderdi politikoren eta Ikastolen Federakuntzaren azpizkioa eta demagogia, herria nahastu baino ez bait dute egiten.

Apustu egiten dugu Euskal Eskola Publikoaren alde, inolako beldurrik gabe.

S.F.X. IKASTOLAKO

GURASO TALDE BAT

Euskal Eskola Publikoak: Ikastola

Euskal Herriak landu dituen ikastetxe publikoak Ikastolak dira. Bestela galde-tu inolako jabetasun prentesiorik gabe, hainbat diru eta ezerdi jarri duten pertsonen.

Egin ahalak egin arren, legeak eta inguruko berri guztiek ez digute argitu Ikastolen proiektua ziurtatzen denik eta zalantzak sortu dizkigu gure gogoko Ikastolak egin ahal izango diren ere.

Azpian izenpentzen dugun gurasook argi daukagu Ikastola aurrera eramateko erabakiak geure esku behar ditugula eta legeak erabakiak kendu egiten dizkigu, herriak eskatzen duen Ikastola proiektuari inolako ziurtasunik eman gabe. Beraz, lege honen aurrean orain arte bezelaxe jarraitzea proposatzen dugu.

ION ZABALA MARITXALAR,
ION URRUTIA ARANA, JOSE M^a
MUJIKI ARRIETA, ALEJANDRO
MENDIZABAL GALLASTEGI,
JOSE ANTONIO LOPEZ VELEZ,
JOSE RAMON ELORZA GOR-
SABEL, JESUS M^a ALABA
ZUBIA

Zer deritzozu Roneoko oinezkoen zubi berriari?



Teo Salaberri
Jubilatua
(67 urte)

Nire ustez ondo dago. Lehen kotxe artean pasatu behar genuen bidea eta nire adinean... Bai, ondo dago, beharrezkoa zen.




Eleodoro Espada
Langabetua
(24 urte)

Alde batetik bestera pasatzeko beharrezkoa zen, hemendik kotxe gehiegi pasatzen da eta. Eskailera gehiegi daude, beharbada beste modu batean eginda...




Jaione Ruiz
Langabetua
(21 urte)

Ez dazkit, pasatzen naizen lehen aldia da baina bai, ondo dago. Beharrezkoa zen bidea pasatzeko.



Juan Jose Cabra
Trefasako langilea
(44 urte)

Bada, ondo dago. Orain behintzat ez dago bidetik pasatzeko beharrik. Beharbada luze xamarra da baina, ondo dago.




Juan Jose Espada
Aranzabaleko langilea
(42 urte)

Oso ondo dago, pasatzen naizen lehen aldia da baina ondo dago. Behar beharrezkoa zen. Pertsona nagusientzat beharbada eskailera gehiegi daude.



Carmen Fernandez
Etxekoandrea
(58 urte)

Nire ustez eskailera asko daude, gehiegi. Nire erreumarentzat oso txarra da. Ez dakit, beharbada beste modu batean egingo nuke nik.



Dabid Arranz
Jubilatua
(74 urte)

Nire ustez gehiegizko materiala eta denbora gastatu da eta gehiegizko bolumena da behar zen zubirako. Harrobi inguruan dagoen zubia, hau baino askoz ere erosoago da.



Piedad Montero
Etxekoandrea
(57 urte)

Orain behintzat alde batetik bestera pasatzea ez da hain arriskutsua. Lehen denbora asko itxadon behar izaten genuen, kotxe asko pasatzen da eta.

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikulak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

LAURA
GAZTE MODA

Erdiko kale, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 57 20

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguatorialdea 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 71 44 52
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazkiak 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udaltzaingoa 79 09 00
 Udaltzaile suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitate (iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 21
 Egunez: Español. Iturriotz.
 Gauez: Español. Iturriotz.

Larunbata 22
 Egunez: Corcuera. Musakola.
 Gauez: Corcuera. Musakola..

Igandea 23
 Egunez: Irizar. Erguin.
 Gauez: Irizar. Erguin.

Astelehena 24
 Egunez: Amezua. Santa Marina.
 Gauez: Amezua. Santa Marina.

Astearte 25
 Egunez: Ruiz. Maala.
 Gauez: Ruiz. Maala.

Asteazkena 26
 Egunez: Morales. San Andres
 Gauez: Morales. San Andres

Osteguna 27
 Egunez: Azkoaga. Ferrerías
 Gauez: Azkoaga. Ferrerías

21 OSTIRALA

ZINEA


"Dobles parejas" (7,10)

ANTZERKI EMANALDIA

"Bederen bat" taldearen "Argirik piztu gabe" obraren antzezpena. Gaueko 10etan. Aretxabaletako Zeraia Zineman.

ROCK KONTZERTUA

"Daxka" eta "Requiem" taldeen rock kontzertua. Arrasateko Gaztetxean. Gaueko 9etan.



SENIDEARTEKO TOPAKETAK

Bihar larunbata eta igandean Aita Menniko senidearteko topaketak burutuko dira. Senide eta ekipo terapeutikoa arteko harremana sendotzeko asmoarekin, ekintza desberdinak burutuko dituzte bi egunetan. Larunbatean, goizeko 10etan senideei harrera egingo zaie, 11.30etan aurreko urteetako topaketei buruzko bideoa ikusiko dute, 11.30etan ekintza desberdinen azalpena, 12.30etan Ospitaleko koruaren emanaldia, eguerdiko 2etan bazkaria eta arratsaldeko 4.30etan zozketa eta dantzaldia izango dira. Era berean, egunetan zehar Jon Balentziagak eta gaisoek eginiko margo eta zeramika erakusketak ikusi ahal izango dira.

22 LARUNBATA

ZINEA

"Juego de lagrimas" (5,7,30,10)

43KO KINTOEN EGUNA

43ko kintoen eguna. 2.30etan meza Musakolako San Isidron. Bazkaria Musakolako Hostalean.

DEBA GARAICO ESKOLA ARTEKO 4. OLINPIADA

Deba Garaiko eskolen arteko 4. olinpiada. Arratsaldeko 3etatik 7.30etara. Aretxabaletako Kiroldegian, Iturrigorri, Ibarra eta Herriko Plazan.

AEDKO UDALEKUETAKO BILERA

AEDko Udalekueetako begiraleen bilera. Goizeko 10etatik aurrera, igandeko 1ak bitartean. Udalako Ingurugiro eskolan.

EA EU E ALDERDIEN KANPAINAREN HASIERA

EA eta EuE alderdien kanpainen hasiera. Afaria EAko egoitzan. Gaueko 9etan. Izenak emateko: 79 64 53 edo 79 86 36ra dei egin.

SENIDEARTEKO TOPAKETAK

Aita Menniko gaixoen senidearteko topaketak. 11etan topaketei buruzko bideoa, 12.30etan koruaren emanaldia eta meza. Eguerdiko 2etan bazkaria. Egun osoz: erakusketa. Aita Menniko Ospitalean.

GAZTETXEKO II. PARTXIS TXAPELKETA

Arrasateko Gaztetxeak bigarren partxis txapelketa antolatuko du. Parte hartzeko interesa duzuen guztiok lehenbait lehen eman beharko duzue izena. Horretarako bertara zuzendu zaitezke. Parte hartzeko 500 PTA ordaindu beharko dituzue. Irabazleen saria sorpresa izango da.

23 IGANDEA

ZINEA

"Juego de lagrimas" (5,7,30,10)

IBILALDIA 93

"Ibilaldia 93" jaira, Ondarrura joateko autobusak. Irteera: goizeko 9etan Garibai geltokitik. Izena ematea: HIRE, AED, Iturriotz. Prezioa: 750 PTA.

TRONBOI KONTZERTUA

Baionako tronboi laukotearen eta Arrasate Musikaleko Metal taldearen kontzertua. Monterron Parkean. Arratsaldeko 6.30etan.

ATZERATUEN EGUNA

Atzeratuen eguna: 12.30etan Karkabal elkartearen bidu; 2etan bazkaria Karkabalen, 4etan sari banaketa, 5etan Monterronen jai berezia. 7etan Agurra.

IGANDEAN ATZERATUEN EGUNA

Igandean, maiatzak 23, SUDCek antolatutako atzeratuen eguna ospatuko da Arrasaten. Goizeko 12.30ak aldera Karkabal elkartearen bildu eta gero, herriko erdialdera zuzenduko dira trikitixa eta tunarekin. Eguerdiko 2ak aldera, bazkaria hasiko da eta 4etan, bazkalondan, sari banaketa egingo da. Eguraldiak laguntzen badu, Monterronen 5etan hasiko da jai berezia, bestela Udaletxe-ko arkupetan. 7ak aldera bukatuko da jai.

24 ASTELEHENA**ZINEA**

"Juego de lagrimas" (7,9.30)

JOSTAILU ERAKUSKETA

Ludotekako jostailu tailerrean eginiko jostailuen erakusketa. Maiatzaren 30a bitartean. Harresi Aretoan.

MENDI ASTEA: FILMEA

"Esquiando en la ruta de la Seda" izeneko filmea. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Besaidek antolatuta.

25 ASTEARTEA**ZINEA**

"Juego de lagrimas" (7,9.30)

MENDI ASTEA: DIPOSITIBA EMANALDIA

"Chimanta 93" diapositiba emanaldia. Emalea: Espeleologia Espedizioa. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Besaidek antolatuta.

26 ASTEAZKENA**HITZALDIA: LEHEN LAGUNTZA**

"Lehen laguntza: intoxikazioak, salmonelosis..." izeneko hitzaldia. Emalea: Marisa Bonzas. Arratsaldeko 4etan. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan. Sarrera librea.

MENDI ASTEA: DIAPOSITIBA EMANALDIA

"Ekologia" izeneko diapositiba emanaldia. Emalea: Antton Iturriza. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Besaidek antolatuta.

27 OSTEGUNA**HITZALDIA: "EMAKUMEAREN PAPER ELIZAN"**

"Emakumearen papera elizan" izeneko hitzaldia. Emalea: Jose Mari Astigarraga parrokoa. Arratsaldeko 4etan. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan. Sarrera librea.

MENDI ASTEA: DIAPOSITIBA EMANALDIA

"Patagonian eskaladak" diapositiba emanaldia. Emalea: Xabi Ansa. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Besaidek antolatuta.

24-30: MENDI ASTEA


Datorren astelehenean hasiko da Besaide Mendizale Elkarteak antolatatu duen mendi astea. Egunero ekintza desberdinak izango dira, arratsaldeko 7etan eta Monterronen. Astelehenean "Esquiando en la ruta de la Seda" izeneko filmea botako da, astearte, asteazken, ostegun eta ostiralean diapositiba emanaldiak eta hurrengo larunbat eta igandean mendi irteerak, bizikletaz 29an eta oinez 30ean.

AEDko UDALEKU IREKIAK

Uztaileko AEDko Udalekuek parte hartzeko izena eman duten begiraleen lehen bilerak izango dituzte asteburuan. Bihar, larunbata goizeko 10etatik aurrera bilduko dira, igande eguerdiko 1ak bitartean, Udako Ingurugiro Eskolan. Lehen txandan 37 ume eta 7 koordinatzaile eta bigarren txandan 19 ume eta 4 begirale izango dira.

DIAPOSITIBA LEHIAKETA

Ikarus taldeak "Zerua eta kirola" izenpean diapositiba lehiaketa antolatuta du. Parapentea, delta eta orokorrean airean praktika daitzekin kirol desberdinak har daitezke gaitzat. Diapositibak maiatzaren 31a baino lehen entregatu beharko dira Ikarus taldea, 215 postakutxa, 20500 Arrasate helbidean. Irabazleen izenak ekainaren 10ean ezagutuko dira. Lehen irabazleak 10.000 PTA jasoko ditu, bigarrenak 5.000 PTA eta hirugarrenak 3.000 PTA.

**DEBA GARAICO ESKOLA ARTEKO 4. OLINPIADA**

Bihar, maiatzak 22, Deba Garaiko eskola arteko 4. olinpiada burutuko da. Deba Garaiko edozein herrikako ikastetxeetan dabiltzan O.H.O.ko 5.etik 7.mailararte neska-mutilek har dezakete parte. Talde bakoitza 4 pertsonak osatuko dute eta kirol multzo bakoitza burutzeko ordubeteko denbora izango da. Lau ezdesberdin egongo dira. Lehenen, rokodromoa, yoyo, igerilekua, ohe elastikoa... bigarrenean krocket, baloi erraldoiak, rugbya, arku tiraketa, beisbola... hirugarrenean, pilota, badmintona, floorballa, bola... eta laugarrenean soka-tira, kaltzoak, txingak, zintta karra, gin-kana... Guztiak arratsaldeko 3etatik 7.30ak bitartean, Aretxabaletako toki deberdinetan, kirol multzoaren arabera.

“ez dut euskarazko sententziarik bat ere ezagutu. (...) Euskaldunok bandera politiko bihurtu dugu euskara; erreibindikatu egiten dugu baina ez erabili. Funtzionarien euskalduntzea esigitzea hipokrita iruditzen zait, ingurune euskaldunetan ezinbestekoa iruditzen zaidan arren. Hizkuntz normalizazioa lortzeko denok aldatu beharko dugu jarrera, hizkuntza ez baita politikoa eta ez-politikoa, eta espresio eta komunikaziorako tresna bezala duen garrantzia baino ez diogu eman behar. (...) Nire aurrera deklaratzera datorrena bere deituegatik eta beste-lako ezaugarriengatik euskalduna dela ikusten dudanean, euskaraz ala gazteleraz deklaratu nahi duen galdetzen diot lehengo, euskaraz noski, eskubide konstituzionala da eta. Galdera entzutean zerua irekitzen zaio jende askori, jendea horrelako lekuetara datorrenean beldurrez etortzen da eta; edozein boterek ematen duen beldurrez”.

Nekane San Miguelek Tolosako epaitegian

“Nire helburu bakarra, ikusi eta entzun dudanarekin kontsekuente izatea da, edo gauza bera dena, gertaerak kontatzea, eta ez iritziak.”

Pedro Mendietak Barakaldoko Instrukzio epaitegian

“Aseguru etxeek urtean zehar egiten dituzten akats ugarietako baten biktima izan naiz ni. 22 urteko neska gazte bat naiz, eta nire adinean zoritxarrez, autoarentzako aseguru egiteak gainkargua dauka. (...) Aseguru etxeak andereñoak egindako akats batengatik beste bi urtez jarraitu behar dut karnetaren gainkargua ordaintzen. (...) Ulertuko duzuen bezala, aseguru buruz dudana iritzia txarra da, eta artekaritzei buruzkoa okerragoa, izan ere, abantailak izan beharrean tratatu txarra besterik ez dut jaso”.

J.P. arrasatearrak


EROSKI

Nola dago herriko ur eta saneamendu sarea?

Azken hiru urtean bete dira puntu beltz nabarmenak. San Andres auzoa, beti izan da problema puntu bat. Er-guinen ere egin izan dugu saneamendu obra berezi bat, Uribarri partean ere inportantea egin zen. Orain egin dena, bi fasetan, Musakolako bi sareak jartzea izan da, eta orain auzoko premiak betetzen gaude. Aste honetako obra, gure ustez oso zati inportantea da, geroko Santamainako sarea osatzeko inportantea. Hori da puntu beltzak kentzearen egin duguna.

Zerbitzu batzordean uste dugu plangintza bat egin behar dela, ze premia dauden jakiteko. Premietan nahiko lotuta daude, bai sare separatibo bat egitea erreka urak eta ur fekalak banatzeko, eta bai zer izan behar den Arrasateko saneamendua. Aurten asmoa da apur bat begiratzea berriro ea bete diren puntu beltzak, eta non diren karentziak, zer problema agertu diren. Puntu beltza esaten denean ez da uholdea edo urak agertzea bakarrik, baita obstrukziorik dagoen edo sareren bat apurtuta dagoen. Denetarik analizatzea da gure asmoa, ea non dauden problemak.

Ez da samurra esatea nola dauden Arrasateko ur eta saneamendu sarea. Uren sarea, nire ustez, ez dago txarto, baina txukun dagoela. esateko gutxienez beste plangintza bat bete behar da Txukun edukitzeko, beste lau urte bete beharko dira. Eta saneamenduan, nire ustez, akats asko dago. Bai obstrukzioetan, bai defizientzietan eta bai arrisku gehiago dagoela uholde mailan.



Alberto Loiti

Udaleku zerbitzu arloko teknikaria



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Istripuan hilda

Joan den ostiraletik larunbaterako gauean trafiko istripu hilgarria izan zen Arrasaten. Goizeko 5ak aldera, Musakola inguruan Peugeot 309 batek irten egin zuen errepidetik eta buelta eman zuen, ezagutzen ez diren arrazoiengatik. Ondorioz, gidaria, Eugenio Murillo Barquero, 28 urteko arrasatearra hil egin zen ospitalera eraman ostean. Emilio B.C. (25 urte, arrasatearra), bere ondoan zihoana larri zaurituta geratu zen, baina arriskutik kanpo.



Errepide mozketa dela eta

Arrasate erdi-erditik zeharkatzen duen errepidea moztu egingo da esteburu honetan. Gipuzkoako Etorbidean, Legarrekobidegurutzearen eta Santamainara igotzeko bidearen arteko tarte (argazkian) egongo da moztuta larunbatetik, seguru asko astelehena arte. Santamaina auzoko saneamendu sare berria kokatzea da mozketa arrazoia, izan ere bi hodi edo tuberia handi jarri behar dira, eta nahiatahazie errepidea igaro behar dute. Hasieran, mozketa asteartean egitekoa zen, baina udalarduradunek trafikoa gehiegi nahastuko zelakoan, nahiago izan dute asteburura atzeratzea lanak. Asteburuko lanak baditu kalteak, hala ere, edozer ezusteko gertatuz gero, zailagoa da konpontzea. Obren ondorioz ur-mozketak ere izan daitezke kale batzuetan, udaltzaingoa ohartarazi duenez.

Beste istripu bat

Igandean, Donostiako saihesbidean Pasaiaren parean, motorrean zihoan Arrasateko mutil batek (I.R.A., 24 urte) istripua izan zuen. Berarekin zihoan neska, Oñatiko E.B.A. (20 urte), mutila baino larriago geratu zen istripuaren ondorioz. Yamaha batean zihozen bi gazteak, tunel batean paretaren kontra jo zutenean.

Bi gazte atxilotu zituen Ertzaintzak kalean

Pello Mariñelarena presoaren heriotzagatik protesta manifestaldi baten ondoren, bi gazte atxilotu zituen Ertzaintzak asteartean. Aitor Etxabe taberna baten atzeman zuten eta Enrique Foronda kalean. Bi kasuetan, ertzainak kaleko jantzita zeuden eta aurpegia estalita zeramaten. Atxilotuak Bergarako epaitegira eraman zituzten.

Familia eta Gizarte-Heziketarako zentroa

Gipuzkoako Familia eta Gizarte-Heziketarako zentroak 25. urte bete zituzten joan den astean. Hori dela eta, Santamaina auzoan dagoen Arrasateko zentroak elkarte hauen zereginaren memoria aurkeztu zuen joan den ostiralean. Arrasateko zentroa 21 urtez dabil lanean; 1972an zabaldu zen eta, eta gaur egun ehundik gora lagunek hartzen du parte hilero bertako ekintzetan. Emakumeei zuzenduriko ekintzak izaten dira batetik ere, arratsaldeko hitzaldi eta ikastaroak.

Legargaingoan kexuak

Legargaingo bizilagunak beren etxeen inguruan etxebizitza gehiago egitearen aurka azaldu dira. 20.000 metro karratuko berdegune batean dira eraikitzeoak etxeak, eta bizilagunen ustez, horrek auzoaren "birika" ito egingo du. Udalaren hirigintza batzordea kritikatu dute gogor Legargaingoek idatzi batean. Beren ustez, dirua biltzea da Udalaren ardua guztia, eta hala ari dira sortzen Arrasaten eraikuntza masifikatuak. Adibidez, Larrea eta Roneoko etxe eraikuntzak jartzen dituzte.

Zabortegiak salatu dituzte

Eki talde ekologistak salatu egin ditu Deba Garaian gertatzen diren hondakin isurketa eta zabortegi inkontrolatuaren kasua. Akein intzineratzailea mantentzea "anti-ekologikoa" da Ekiren iritziz, eta hortaz, Epelen beste bat egitearen aurka daude. Zabortegi inkontrolatu guztien itxiera eskatu du Ekik, Epeleko martxan dagoenetik zentzurik ez dute eta. Zabortegi horietara oso produktu arriskuatsu eta kutsakorrak jaurtitzen dira, euren esanetan, lindane edo altzairu hautsa; eta Akei ondoko zabortegiak bertako erreka zuloa ere kutsatzen du.

Lapurreta eta eraso

Ertzaintzak Soralezko Juan Antonio E.L. (25 urte) atxilotu zuen asteartean, Arrasaten 62 urteko emakume bati tira eginez poltsoa ostu eta gero. Emakumea lurrera bota zuen lapurrak eta traumatismoak izan zituen erasotua ondorioz. Lapurrak auto batean egin zuen ihes eta Soraluzen atxilotu zuten.

JAIOTZAK


• Lander Ajuria Izquierdo, 5ean.

EZKONTZAK

• Martin Flores Matina & Mari Carmen Benitez de la Cruz, 15ean, elizaz.

HILDAKOAK

• Jose Vigo Padilla, 8an, 81 urte.
 • Jose Balves Albizu, 11an, 85 urte.
 • Angel Garitano Berezibar, 13an, 64 urte.
 • Cruz Berastegi Lizarraga, 13an, 65 urte.
 • Eugenio Murillo Barquero, 15ean, 29 urte.
 • Dolores Romero Perez, 14an, 86 urte.




ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
 Tfnoa: 79 77 11
 Faxe: 79 77 11
 ARRASATE
 Postakutxa: 118

TTUKUN

Fotokopiak
 Enkuadernazioak
 Koloretan fotokopiak
 Planoen erreproduzioa
 Offseta
 Ferrerías, 23 ARRASATE
 Tfnoa: 79 46 62

Memesa
79 42 22



JOSEBA UGALDE *

Kooperatibak, norantz?

Kooperatiben munduak aldaketa bat bizi du urte hauetan. Proiektuaren alderdi enpresarialari buruzko iritziak alde batera utzita, badira beste zenbait alderdi kezka-garriak direnak. Badirudi, bai lan harremanei, bai kooperatiben egungo esparru juridikoari dagokionez, kooperatiben zuzendaritzek korronte doktrinal "malguagoen" garapenarekin zerikusia duen guztia bultzatzearen alde egiten dutela apostu. Bazkideen eskubideen oinarritzko egiturak suntsitu nahi dituzte eta, horrek, egitura horien edukin sozial aurreratuenak desnaturalizatzea dakar.

Kooperatiben lege berriko zenbait artikuluk (kalera botatzeko aukera erantzen da, kapital mistoa sartzen da eta erabakitze ahalmena ematen zaio, gai guztiak ezin dira asanblada bitartez erabaki...) baita kooperatibak hemendik aurrera kapitalaren osaketan eta botere politikoan mistoa-

goak izateak ere, hauxe isladatzen dute: kooperatibek, gaur atzo baino gehiago eta bihar baino gutxiago, gero eta automatismo haundiagora eta erabakiak zentralizatzen daraman bidea hartu dute, eta bitartean, axola zaizkien erabakietan parte hartzeko ahalmena galtzen dute bazkideek.

Hausnarketa hauen ildotik, kooperatibista gehienak hartuko dituen hitzarmen sozial eta kooperatibo baten premia agertzen dute zenbait taldek, enpresak kapitalismoaren aseiztasunetik askatzeko eta, antza denez, eredu kooperatibistaren uestezko birjintasuna kanpoko finantzazarreratit eta enpresa kapitalisten ohitura eta moduetatik salbatzeko. Egungo partaidetzak, aliantzak, Max Center eta aurrakusten diren antzekoak kontutan hartuta, ez litzateke gaizki egongo aipatutako talde horiei beren proposamenaren alderdiak gehiago zehaztu ditzatela eska-

tzea, izan ere, guri, dugun ezjakintasunean, imajinatzea ere zaila egiten baitzaigu.

Behin hitzarmenak proposatzen hasita, guk oso zehatz bat proposatzen dugu: langile kooperatibisten ahalginak bateratzea, Eskubide Soziala Euskadiko Kooperatiben Lege berrian derrigorrez Bete beharreko Arau izan dadin, Valentziako kooperatiben legean bezala.

Dagoen mugarik gabeko kompetentzia egoera honetan, kooperatibetako zenbait buru CEOE inguruko tesiekin gero eta identifikatuago daudela, zuzendariak birbaliotzea planteatzen delarik eta kapitalismoa bere "alderik krudelena" erakusten ari dela, ezin ditugu, eta ez da komeni, gutxiengo baten edo sistemaren ontasun, sentiberatasun sozial eta etikan oinarritutako hitzarmenak egin.

Adierazitako alderdi bakoitza zehazten ez badugu, desberdintasunik mingarriek, esplotaziorik handienek eta langileengan babesgabetasunik larrienek irauteko balio duten ideia ustel eta kontzeptu zaharrak sartu nahi dituzten (beste hizkuntza eta bestea formula batzuk erabiliz) izaera neoliberalesko teoriatan euskarritutako zenbait korronte juridiko normalizatu daitezke kooperatibetan.

Planteamendu horiei alto egitea da langileen lehenengo lana, kooperatibistak nahiz sozietate anonimoetakoak izan. Horretan saiatu ezkerro, hitzarmenen bidez modua eta bidea aurkituko ditugu, inolako dudarik gabe.

CCOOkoa

USTEAK USTE

QUO VADIS, IKASTOLA?
Herriarrek sortu zituzten herria zerbitzeko. Helburu sinple eta handia betetzea beste asmorik ez.
Bizitzara ekarri zintuzten gizon emakumeek ezberdina nahi zintuzten: autonomia, euskalduna, denon artean gestionatua, herri eskola bat.
Jaio ahala jazarpena sufritu zenuen, diktadura garaian. Baina, halanola, jasan zenuen. Une txarrak garai hartakoak. Eta, diktadoreak mortalak direnez, halako batean desagertu zen egoera gogor hura.
Egun hartan ametsetan hasi zinen. Gau eta egunez. Egunerok. Egunen batean ondo merezitako errekonozimendua lortzea zen zure ametsa. Ez zen lan erraza. jakin ondo dakigu nahi zenuena: gure Euskal Herrirako eskola publiko berri bat, ezberdina, orijinala, demokratikoa. Baina horrelako asmakizun batek ez zuen ondo enkajatzten Madrilan definituriko eskola publikoaren eremuan. Eredu aldaezina, itxuraz.
Gaur ezkontuta ikusi nahi zaitu norbaitek. Eta horretarako bi senargai jartzen dizkizu bat aukera dezazun. Ez duzu beste aukerarik, gustokoak ez izan arren: Bata, pribatua, zure filosofiarekin bat ez datorrelako. Bestea, publikoa, zure ametsetako amodioaren abizen bera izan arren, ez da berdina. Noizko maite duzun senargai hori? Zenbat itxaron behar? Nora zoaz, ikastola? Nora zoazte ikastolakook? Guk dugu azken hitza.

JOSE RAMON ELORTZA

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak pintxo
eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE



Herriko emakume taldeek eskatuta hartu dira erabakiak, baina ez dira eskaera guztiak bete.

Emakumeentzako babes-etxea irekiko da laster

Emakumeen arazoak atenditzeko zerbitzua zabalduko du Arrasateko Udalak aurren. Pertsona bat kontratatuko da, udaletxean emakumearen berdintasunaren aldeko ekimenari eusteko, eta premietarako babes-etxe bat ere irekiko da. Hurrengo urterako, egun Ongizate batzordearen gain dagoen emakumearen arloak, sail propioa izan dezake. Hurrengo urtean Arrasateko emakumeen egoera aztertze-ko ikerketa zabala egiteko asmoa ere badago.

Oraingoan, babes-etxea izango da nobedade deigarriena. Ez da emakumeentzat bakarrik izango, larrialdian dagoen familia batek edo edozeinek erabili ahal izango du premia badu (inori etxea erre-

tzen bazaio, esate baterako). Baina etxearen erabilera nagusia, senarrarengandik banandu nahi duten emakumeei laguntzeko izango da. "Orain arte ez da inor hori eskatzen etorri, baina errekurtsioa jartzan baduzu, segituan azalduko da jendea eske", esplikatzan digu Olatz Etxabek, udaletxeko gizarte-laguntzaileak. Etxe hau pisu bat izango da, eta alokatu egingo du Udalak. Uda ostean martxan egongo da seguruenik.

Iniziatiba hauen sorburuan, Arrasateko lau emakume talderen proposamen bateratua zegoen. Emakumeen Asanblada, Egizan, Ekin eta Famili eta Gizarte Heziketa zentroak eskatu zuten emakumearentzat

zerbitzua. Beren eskaeretako bat, bulego bat irekitzearena, ez da gauzatuko oraingoan. Babes-etxea soilik emakumeentzat izan zedin ere nahi zuten, baina azkenean ez da hala izango.


Ongizate arloan tratatzen dutena, familia arazoak dira batipat. Formazio falta eta auto-estima txikia ere gertatzen da hurbiltzen diren emakumeengan. "Tratu txarrak egon badaude, baina ez dira denuntziatzen", gehitzen du Etxabek. Laguntzeko, Diputazioaren bitartez, aholkularitza juridikoa (banaketa eta dibortzioetarako) eta psikologikoa eskaintzen da.

HIES-Ekimena: 1. urtebetetzea

Urtebete egin du Arrasateko HIES-ekimena elkarrekin, eta hori dela eta beren ekintzen balantzea aurkeztu zuten asteazkenean. Egin dituzten ekintzetan, jendearen partaidetza oso ona eta positiboa dela baloratu dute. Aurrerantzean, orain arte bezala, ikastetxeetan ikastaroak ematen. Ikastaroen arloan, sexualitate tailer berezituak ere antolatuko dituzte: batetik, gurasoentzat; bestetik, emakume eta bikoteentzat, eta azkenik profesionalentzat (gizarte laguntzaileak, osagileak, udaltzainak, Gurutze Gorriko eta DYAKo kideak). Horrez gain, abendu parterako erakusketa erraldoi bat antolatu nahi dute Arrasaten, HIESaren aurkako artea eta ikuskariak bilduko dituen *happening* handi bat.

Elkarri-ren firma bilketa

Elkarri mugimenduaren Arrasateko taldeak firma bilketari ekin dio, beste hainbat herritan bezala. Firmak biltzeko hilean behin (azken larunbata) kalera mahaiak aterako dituzte aurrerantzean. Denon bitartekaritzarekin, euskal arazoari irtenbidea ematea nahi du Elkarri. Arrasateko Elkarrin zortzi bat lagun biltzen dira astero, eta 20 bat daude gauza puntaletan laguntzeko.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



Leizetxikin, Garagartza auzoan, euskal prehistoriaren aztarnategi garrantzitsuenetakoa dago.

Euskal Y delakoaren ardatza Leizetxikin ageri da planoetan

Udalak Euskal Y deritzon proiektuaren plano zehaztuak jaso zituen duela aste batzuk, eta ustekabeko daturen bat ageri da bertan. Euskal Y delako hau, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) bitartez Euskal Autonomi Elkarte hiriburuak konektatzeko trenbidea da, eta Gasteiz, Bilbo eta Donostiako hiru bideek Arrasateko udalerrian egiten dute bat. Gauza jakina zen hau, baina oraindik ez zen ezagutzen trenbide berezi hauen trazaketa zehatza, eta hara non, Eusko Jaurlaritzak Udalarari bidali dizkion planoetan, Y famatuaren ardatz edo elkargunea Leizetxikiko kobaluzuloan bertan den.

Y trenbidea lurrazpitik joango litzateke Arrasate osoan zehar. Geltokitik ere ez legoke, baina elkargunean, ardatzean bertan, obra handiak egin beharko dira, eta puntu hori Garagartza auzoan da, leizea dagoen tokian. Udalak asteleheneko Gobernu Batzordean tratatu zuen gaia, eta trazaketa berriro aztertzeke eskatu dio Jaurlaritzari.

Leizetxikik balio arkeologiko handia dauka euskal prehistoriaren arloan. Jose Migel Barandiaranek berak aztertutako kobaluzuloetan gizaki aztarna ugari aurkitu izan dira eta, hortaz, ingurunea erreserba arkeologiko izendatuta dago.

Uherkapeko auzia plenora

Datorren ostiralean, 28, edingo den plenoan, Uherkapeko horma eta etxeen auzia tratatuko da azkenik. Mozio bat aurkeztu dute afektatutako hainbat bizilagunek: Altamira, Makatzena eta inguruko biztanleak batetik, Uherkape Elkarteak (egin bako etxeak erosi dituztenak) eta La Merced ikastetxeko gurasoek. Aldi berean, afektatuek sinadura bilketa hasi dute arazoaren inguruan jendea sentsibilizatu dadin. Auziaren jatorrian, mendi magalari eusteko eraiki behar den horma dago.

Euskara batzordearen laguntzak

Udal euskara batzordeak akordatutako laguntza batzuk onartu ditu udal Gobernu Batzordeak aste honetan. Ikastolen aldeko Ibilaldia eta Araba Euskaraz ekitaldiei, 45.000na PTA emango zaie, Nafarroa Oinez eta iparraldeko Herri Urratsi, 65.000na PTA, eta Argia astekariari 55.000 PTAko laguntza.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!




**BAZKARI
ETA AFARI
ONENAK!!!**

Tfnoa: 71 46 08



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du



Lantegiaren ondoan pankarta bat jarri dute langileek inportazioengatik protestatzeko.

IFAM enpresak lanpostuak desegin nahi ditu langileen ustez

Feliciano Aranzabal SA (IFAM) enpresan hiru hilabeteko enplegu erregulazioa hasi dute maiatzean, langileen aurkako jarrerarekin. Lan Delegazioak onartutako espediente salatu dute enpresa komiteko sindikatu guztiek (CCOO, LAB, ELA eta UGT). Erregulaziopean plantilako langile gehienak daude, 86, eta horren arabera asteen bi egunez ez dute lanik.

Langileek salatu dutenez, "negozio industrialetik Ekialde Urrunetik ekarritako produktuen komertzializaziora pasatzen saiatzen ari da zuzendaritza". Hau da, IFAMen produktu diren kandadu eta zerrajería elementuak, lantegikoak berak saldu beharrean,

kamiokadak ekarri dituzte kanpotik. "Honek etxeko produktuen salmenta galerazten du, eta lanpostuetan eragin zuzena du horrek", azaldu du enpresa komiteak agiri batean.

Sei hilabetez ari dira protestan langileak, zuzendaritzari epe ertain eta luzerako plangintza eskatzen, baina "enpresak ez du halakorik nahi, langile soberakinak sortzeko helburua lortzen ari baita". Hori dela eta, erregulazioko lanik gabeko egunetan (astelehen eta ostiraletan) lantegira joaten dira langileak protestan. Beren helburu nagusia: kanpoko produkturik dakarren kamioirik baletor, deskarga galeraztea.

Kataideko zubia

Joan den asteburuan inauguratu zen ofizialki Kataideko zubi metaliko berria. Errepide nagusia salbatzeko egindako zubi honen helburua ibiltari eta autoentzat arriskua gutxitzea da, handik paseoan ibiltzen den jendeak errepidea igaro behar baitzuen orain arte. Hala ere, zabaldu denetik ere, askok eta askok, zubitik buelta eman eta eskilarak ez igotzearren, errepidetik igarotzen du oraindik. Hori dela eta, inguruan obra batzuk egingo dira, hori ebitatzeko: trabak jarriko dira jendeak ezin izan dezan errepidera pasatu. Aipa daiteke, bestetik, zubi bitxi honek baduela dagoeneko gaitzizena: zubi erromatarra!

Aulkiak tabernen kanpo kaleetan

Uda datorrela eta, udaletxeak tabernen kanpokaldeetan mahai eta aulkiak jartzeko araudi bat onartu du. Goizeko 10etatik gauerdiko 12ak arte izango da ordutegia, ordubete beranduago arte jai bezperetan, eta mahaiak batzeko konpromezuarekin.

HAGIN KLINIKA

— Era guztietako konponketak egiten ditugu —

PABLO MARMOL MASTRANGELO Doktorea
MARISA PORTA PEÑA Doktorea
GABRIELA PORTA PEÑA Doktorea

Simon Arrieta Plaza, 3-2.
Tfnoa: 76 38 54
BERGARA

Iturriotz 7 bis, behea
Tfnoa: 79 73 88
ARRASATE



San Viatorreko bigarren mailako 97 ikasle eta 4 irakasle, Senet de Barra-ves izeneko herritxoan egon dira ikasbidaian, Lleida eta Huesca probintzien arteko mugan. Sei egun ekintzaz bete beteta izan dituzte eta, Noguera Pallaresan Rafting egiteko aukera ere izan zuten.



Trikitilariak Garagartza auzoan bildu ziren pasa den igandean. Goizean goiz mendian egon eta gero, Garagartzan festa alaia ospatu zuten: futbol partidua, haur jolasak... eta bazkari ederra.

Kili-Kili aldizkariko aurtengo "Ezetz igarri?" lehiaketan 11.000 gaztetxok parte hartu zuten iaz. Aurten berriz, ikastetxe desberdinetako 1.800 ume arrasatear aurkeztuko dira lehiaketa horretara. Zorte on!



Pasa den apirilaren 24ean irakatsi duten ikasle eta lagun bildu ziren eta egun Eskola Politeknikoan, orain irakasleak bildu ziren zoragarria pasatu zuen 31 urte maestria ikasi eta Urtiagainen. Guztira 70 koadrila handi honek.

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

HIES EKIMENA
Astelehenetik ostiralera
11etatik 1,30etara -
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

PEUGEOT - TALBOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

IZEN PROPIOAK



Aspaldiko partez, aurtengo Musakolako jaietan sekulako espektakulua montatu dute motorzaleek. Urte askotan ez da lehenengo ohitu-

ra jarraitu, baina aurtten behintzat, toki desberdinetako motorzaleak eta era guztietako motorrak ikusi ditugu Arrasaten.

Antton Kintana, J.M.
Altunako ordezkaria
eta Bodegilako Txanpi,
aurtengo Musakolako
jaietako I. Euskal
Herriko Urrezko Astaki-
loak dira. Auzoarekin
lotutako gauza esker-
garririk egin duen
pertsona zein talde
saritu nahi izan da.
Zorionak bioi!



● Musakolako Jaietako bolo txapelketan **Rufino Altuna** izan da irabazlea, briskan **Masima Madina** eta **Juanita Gil**, tutean **Gregorio Uranga** eta **Eli Bolinaga** eta musean berriz, **Pedro Mena** eta **Rufino Altuna**.

● Musakolako jaietan jubilatatu nagusienak omendu ziren. **Pablo Arizabaleta**, 85 urtekoa eta **Romualda Madinabeitia**, 95 urtekoa. Musakolako baserri auzoan berriz, beste bi jubilatatu omendu ziren: **Lorenzo Urrutia**, 82 urte eta **Mercedes Garro**, 86 urte.

● **Nekane San Miguel**, 40 urte, arrasatearra, Tolosako epaitegiko epailea izan da, epai bateko bi sententzia euskaraz eman dituen lehen epailea.

Altzariak
Diseinua

M
ARENZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

CEERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.**



**Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.**

**Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta
aholkamendu- maila.**

**Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.**

**Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-
biko bidean.**

Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Lutoa finalerdietan

Joan den asteburuan finalerdiak izan behar ziren protagonista nagusiak Zaldibarren. Baina zoritxarreko heriotza bat ere albiste bihurtu zitzaigun. Eugenio Murillo gaztea, Lorategi Potroak taldeko jokalaria, hil egin zen larunbat goizaldean kotxe istripu baten ondorioz. Zaldibarrera berri tristea zabaldu bezain laster, minutu bateko isilunea gorde zen bigarren partiduaren hasieran. Bizitzak aurrera jarraitzen du,

baita txapelketak berak ere. Finalerdietako lehenengo partiduak jokatu dira jadanik, baina emaitzak ikusita, oraindik dena erabakitzeko dagoela esan daiteke.

Zuloak 4, Argi Ibili 4.

Parekotasuna nagusi eta denak bueltako neurketan zer gertatuko zain.

Trikiti 3, Lenitz 1. Abantaila ederra lortu dute Trikitikoek, baina ikusi egin behar eusteko gai diren ala ez.

**NUEVO
taberna**

Bañez Dokorea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE



DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

SEGURASKI BAIETZ !



**ZULOAK 4
ARGI IBILI 4**

Uste baino parekatuagoa izan zen Zaldibarreko lehenengo finalerdia. Iazko txapelak talde berteranoa topatu zuten parean, ofizioa ezagutzen duten jokalariak, eta kontuak kontu, finalerako txartela airean dago oraindik.

Argi Ibilikoek aurea hartu zuten markagailuan, eta bazirudien alde hori erabakiorra izan zitekeela. 2 eta 0, Txemak eta Doyaguen lortutako golei esker.

Hor iritsi zen Zuloakekoen lehenengo erreakzioa. Nuñezek eta Etxabek gol bana lortu zuten, eta markagailuan binako berdinketa jarri.

Fede Aranbarrik eman zien erantzuna. Gola lortu eta, beraz, Argi Ibili berriro aurretik, 3 eta 2.

Zaldibarreko kantxa bustita, ordea, eta Zuloak taldeak hobetoen dominatzen jokaldia egiteari ekin zion: Guridi atezainak luze, *a la olla*, eta Patxi Ugartek buruaz gola egin. Berriro Guridik luze, berriro Patxik buruaz gola. 3 eta 4, beraz, Zuloak nagusi.

Argi Ibiliko Pedrok lortu zuen partiduko azkenengo gola, launako berdinketa.

Indarrak pare-parean, beraz, emozioa goiaren-goian, eta ikusi egin behar nola geratzen diren kontuak. Finalerako txartela nork eskuratuko duen? erantzuna larunbatean.



**ITURRIOTZ
taberna
Girorik
jatorrena!**

Tfnoa: 79 16 04

LIZARRA taberna

Leintzibar kalea, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35

Bodisca s.l.

Zeramikako pabimentu eta
gaineztaldurak

Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

TRIKITI 3 LENITZ 1

Zaldibarreko bigarren finalerdian Trikiti eta Lenitz Garagardotegia aritu ziren elkarren kontra. Bigarren fasearen bukaeran bi talde hauek husna berdindu bazuten ere, larunbatean kontuak erabat aldatu ziren.

Pronostikoak ere ez zeuden garbi, batzuk Trikitiren alde, besteak Lenitzekin. Eta partidu hasieran bazirudien lehenengoak oker ibili, eta bigarrenek edukiko zutela arrazoia. baina ez zen hala gertatu.

Aurreratu bai, Lenitz taldea aurreratu zen markagailuan, Ferminek lortutako golari esker. Trikitikoak ez ziren urduri jarri, ordea, euren ohizko jokuarekin segitu zuten, eta baita partiduari buelta eman ere.

Rafa, Rafa eta Rafa, jokalar honek lortu zituen bere taldearen hiru golak. Eta bide batez, Trikitik abantaila nabarmena lortu du, finalerako bidean.

Larunbat honetan bi gol horiei eutsi beharko diete, eta kapaz ikusten ditugu helburu hori lortzeko. Badaezpadan gogoratu iazko finalerdietan Lenitz Garagardotegiak lehenengo partidua galdu baina bigarrena irabazi egin zuela. Penaltietan galdu zuten gero.

Printzipioz apustuak Trikitiren alde daude, baina kontuz...



Trikiti

S. L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

ASTE BURU HONETAN**Larunbata 22**11.00 **Trikiti/ Lenitz**
12.00 **Zuloak/ Argi Ibili****Aupa, Eugenio!**

Larunbateko finalerdiak lutoz jantzita joan ziren Zaldibarreko txapelketan. Ostiral gauean saihesbidean izandako kotxe istripu baten ondorioz, Eugenio Murillo gaztea hil egin zen. Heriotza beti da gogorra, baina are eta gogorragoa gazteak eramaten dituenean.

Eugenio Makatzenan bizi zen, gaur egun Gelman egiten zuen lan. Zuetariko askok seguruenik bere garaian Lorategi Tabernako barran lanean ezagutuko zenuten. Azken hiru denboraldietan Zaldibarreko txapelketan jokalaritza gisa zebilen Lorategi Potroak taldean. Goiko argazkian, iaz bere taldekideekin ataratako erretratuan ikusten dugu, erdian.

Albiste tristea eguerdiko hamabiak alde-za zabaldu zen Zaldibarren, eta Trikiti eta Lenitz taldeen arteko finalerdia hasi baino lehen minutu bateko isilunea gorde zen Eugenio Murilloren omenez.

Doluminik sentikorrenak bere familia eta lagunei... eta beti arte, Eugenio!

URIBE AUZOKO FUTBITO TXAPELKETA



Uribe auzoko futbito txapelketan ere iritsi dira finalerdiak. Alpargata Turbo, Lautherbrunnen, Anbotoste K.T. eta Sokoakoak izan dira talderik sendoenak, eta euren artean geratuko da aurreko lehenengo aldiz antolatu den kompetizio honen txapela.

Ezin utzi aipatu gabe, dena den, azken unerarte airean egon zirela finalerdi-arako txartelak. Auf dem Koffer, Ganbelas, Tabernikolas eta Potrozorri taldeek lan ona egin zuten; ez zegoen guztientzako tokirik, hala ere, eta lau hauek hurrengorako gorde beharko dituzte indarrak.

Finalerdiak larunbat honetan jokatu dira, ordutegi hauekin:

Larunbata. Iturripe B. 16.00. Alpargata Turbo-Lautherbrunnen

Larunbata. Iturripe A. 17.00. Anbotoste K.T.-Sokoakoak

Trikipublic

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

● Hela Daedrigh

Emakume migrarien defentsan

Alemaniaiko Hamburgo herrian dagoen emakume migrarien elkarteko partaidea dugu Hela. Migranteek herri berri batean aurkitzen dituzten arazo sozialak aztertzen ditu, Alemanian, batez ere, eta emakumeen kolektiboarekin bereziki.

— Zergatik eta nola interesatu zinen gai honetaz?

— Beno, ni gizarte laguntzailea naiz baina feminista eta internazionalista bezala, batez ere, urte asko pasatu dira Alemanian bizi diren emakume migranteen arazotaz interesatzen hasi nintzenetik. Estatu alemaniarra, bertara iristen diren migranteek dituzten arazo sozialen errudun zuzena da, hauek gaur egun dituzten bizitzeko baldintzetan ere estatuak eragin handia izan duelako eta bera izan delako horien eragilea, azken finean. Horren kontra gaudenez, Alemaniara sartzen diren emakumei laguntzeko, zentru berezi bat sortzea erabaki genuen. Martxan gaudenetik laguntza mota desberdinak eskaini ditugu, herrialde desberdinetatik etorri diren emakume askori, gai-


nera.

— Zein da zentru horretatik emakume migrariei eskaintzen diozuen laguntza?

— Beraiei zuzendutako ikastaro bereziak antolatzen ditugu: alfabetizazioa, alemana, osasuna, exilioan dagoen emakume batek izan ditzakeen arazoetaz eta abar. Baina horretaz gain, bidaia txiki batzuk, festak eta horrelako gauzak ere antolatzen ditugu. Alemanian kanpotarra sentitzen den horrentzat, nolabait integratzeko laguntza eskaintzea da helburua, beharrezkoa dela iruditzen baitzaigu, batez ere kasu konkretu batzutan.

— Migrarien mugimenduan egon da emakume eta gizonen arteko desberdintasunik?

— Alemanian konkretuki beste herrialdeetako oso emakume gutxi sartzen dira, beharbada posibilitate gutxiago izaten dituztelako, emakume izateagatik, noski. Horregatik, migrarien kopuru handiena gizonen artekoa da. Gainera, emakume migrariak, euren seme alabekin mugitzen dira normalean eta maila horretan, hori ere beste oztopo handi bat da emakume



hautentzat.

— Historian zehar egoera honek izan du aldaketarik?

— Beste gauza gehienak txarrera doazen bezala, migranteentzat ere egoera txarrera aldatu da. Esate baterako atzeritarren legea dela eta, emakumeak ez zaio ematen status independente bat eta gizonaren menpe geratzen da beti, bai bizi izateko tokia bilatzeko orduan, bai beste hainbat gauzetarako ere, ezin du bere bizitza independenteki eraman.

— Zeintzuk dira konkretuki arazo larrienak?

— Jendearen aldetik, errefusapen oso gogorra dago migrarien kontra, jendeak migrariak kontrako jarrera du, gehien bat, aleman itxura ez dutenei aurpegi txarrez begiratzen zaie, etxebizitza lort-

zeko zailtasun handiak izaten dituzte eta lana topatzen badute ere, beti izaten dira bigarren mailako lanak: garbitasuna... Lan mota hauekin, emakumeek ez dute inoiz ere residentzia ofizialik lortuko, horretarako bi urtetan asteko 40 ordu lan egitea esijitzen zaie eta Alemanian hori oso zaila da.

— Hemengo egoera ezagutzen duzu?

— Ez gehiegi, baina hemengo egunkarietan irakurri dudanez, egoera ez da asko aldatzen Europako beste herrialdeekin konparatzen badugu. Alemanian esan bezala, arrazismoak hain indar handia du ze, bizitzea ere ezinezkoa egiten zaie emakumei. Hemengo egunkarietan irakurri dudanez, hemen ere neurri bereziak daude kanpoko migrariei sartzen uzteko eta nahiz eta batzuk sartu, epe bat dute lana bilatu edo alde egiteko. Ez dut uste hemen Alemaniako egoera asko aldatzen denik, ezaugarri berdintsuak ematen dira.

● **“Alemaniara datozen emakume migranteek, gizonen baino zailtasun handiagoak izaten dituzte integratzeko”**

Bosniarrak gure artean Itzuli nahi baina ezin

Luis Fernandez

Sei hilabete egin dituzte gure artean, Deba Garaia Bosniarren elkartean eskutik. Hemeretzi lagun dira, bederatzi nagusi eta hamar ume, Bosniatik ihes egin beharrean, errefuxiatu kanpamenduak ezagutu ondoren Eskoriatzara ailegatu zirenak. Ez ziren gertzeko etorri, baina oraingoz, gerrak onera egiten ez duela atseka bez ikusita, beste sei hilabetez egon beharko dute Eskoriatzako San Viator komentuan.

Melita eta Samira, Sarajevo eta Gorazdekoak, prestatu dira Arrasate Press-ekin hitz egitera, nahiz eta kazetariak gogoko ez dituzten. "Denok galdetzen dituzue gauza berak, zer egiten dugun eta hori, eta guk sukaldean gaudela eta garbitu egiten dugula erantzuten dugu eta ez dirudi ezer, baina 20 lagunentzat bada, lana da hori". Melita da erantzuten duena: arkitektoa da, anaia bat hil zioten serbiarrek, beste biren berri ez daki zortzi hilabetetik hona, eta gurasoekin kontaktua galdu berri du kroaziarrek Mostar-en garbiketa etnikoari ekin diotenetik.

Melita bakarrik etorri zen Eskoriatzara, dibortziatuta dago eta bere senar-ohia seme-alabekin dago Frantzia. Gainerako errefuxiatuak familiak daude, baina ez zuten elkar ezagutzen. Sarajevo, Gorazde eta Mostarrekoak dira, musulmanak. Baina elkar ez ezagutzetik familia oso bat egitera pasatu dira abendutik hona.

Eskoriatzan ere, laguntza batzordekoetz gain, jende berria ezagutu dute, bakoitzak bere adin eta girokoak. Asko

lagundu die horrek: "Uste nuen hasieran egongo zela gurekin jendea, ez nuen pentsatzen egunero etorriko zenik gugana nire familiako edo nire inguruko inor ez den norbait". Samirak 23 urte dauzka, Gorazdekoa da, eta ekonomia ari zen ikasten Sarajevon. Orain bere adineko jendea ere ezagutu du, eta ez du inolako kultura txokerik igerrri. "Hemengo bizimodua ez da hain diferentea, gertatzen dena da gure egoera dela hemen berezia, errefuxiatuta

gaudela, hori da txokea".

San Viatorreko komentuan bizi dira, fraileek lekua utzi diete eta hantxe beren jateko eta denaz arduratzen dira. Komentuko ortutxoak ere berpiztu dute gizonak, eta ez dute astirik aspertzeko lanean. Gaztelaniaz txukun mintzatzeko gai dira gehienak, klaseak dituzte egunero, eta haurrak, ikastetxeetan daudenez, inor baino azkarrago dabilza.

Beren ametsa gerra amaitzea eta itzultzea da. "Buelta nahi dugu, baina egoera honetan, han hura nola dagoen ikusita, zer egin dezakegu ba, hemen geratzea hobe da, askok nora itzuli ez dauka eta". Azken egunetako berriekin oso kezkatuta daude, Herzegovina aldean kroaziarrek musulmanen aurka hasi direnetik.

AHAZTU BEHARREKO URTEA

Iazko apirilean gerra hasi zenetik honako urtea, ez dute



Melita arkitektoa da eta Samira ekonomia ari zen ikasten Sarajevon.



→ Bi errefuxiatuak "Deba Garaia Bosniarrekin" laguntza elkarteko Nuria Agirrerekin.

kontatzen beren bizitzetan. Ahaztu beharreko garaia izango da. "Nik ez nuen pentsatzen duela urte t'erdia hau gertatu zitekeenik, elkarrekin bizituen bosniar, kroaziar eta musulmanak eta bikoteen % 35 mistoak ziren. Ez ziren, sentitu ere, etnia batekoak sentitzen: "Jugoslaviarra nintzen, ez nuen sekula ere musulmana edo bosniarra nintzela esaten. Baina orain ez dago Jugoslaviarik, orain ni bosniarra naiz".

Garai batean, jendea etiketa etniko barik bizi zen, "baina hemendik aurrera...". Hala ere, Melitak nahiago du jendearengan sinistea, inor zera edo beste zera dela baino, "jende ona dagoela sinistea". Errefuxiatuen artean Nalda dago, bosniar ortodoxoa (ez du jada 'serbiarra' esaten), Zarko musulmanarekin ezkondua. Pale-n bizi ziren, Radovan Karadzic buruzagi serbiarrak bere koartel nagusia ezarri duen hirian. Han kriminal bihurtu diren gehienak ezagutzen ditu Naldak, beren etxea ostu dietenak ere bai. Duela egun ba-

tzuk Zarkoren lehengusuari eta honen seme bati lepoa moztu diotela jakin dute, eta badakite nork: aldamenekoak.

Berri mingarri hauek irratiafizionatuek utzi dieten ekipoaren bidez jakin dituzte. Egunero hitz egin dezaket setiatutako hirietako beste irratiafizionatuekin, eta haien bidez senitartekoekin. "Batek Gorazden daukan senarrarekin hitz egin zuen atzo, orain ondo daude, baina duela hila-bete ezin zitezkeen irratira joan, tiroen beldurrez ezin

zuten irten ere egin etxetik".

INTERBENTZIOA DELA ETA

Nazioarteak Bosniarrekin hartu duen jarreraz argi dituzte ideiak. "Uste dut ezin daitetzkeela gauzak interbentzio barik konpondu. Musulmanek ez dute defenditzeko arma eta indarririk. Edo armak jaso behar dituzte eta enbargoa jaso, edo lagundu egin behar zaie. Amaitu dadin besterik ez dut nahi. Gero zer egingo dugun ez dakit, baina norbaitek moz-

tu egin behar du hau, hiltzaileak zigortu, bestela palestinarrekin bezala luzatuko da, urteak eta urteak".

Bitartean, Nazio Batuek bertako kasko urdinekin egin dezaket lanean ez dute konfidantza gehiegi. "Ez dute ezer egiten, zibilak defenditu nahi dituzte, baina arma barik edo armak erabili barik, ez dute ezertarako balio, besteek hilditza daude bakarrik. Jana defenditzen dute, baina zibilak defenditu beharko lituzkete".

Eta guk, zer egin dezakegu guk? Esker oneko hitzak baino ez dituzte Eskoriatzan lagundu dietenentzat. Eta Bosniara kooperatzen joan diren brigadista edo laguntzaileentzat berdin. "Niretzat heroiak dira horiek, ez dute zertan joan hara, hemen denetik dute, bizitza konpondu eta han, arriskuan dute bizia, ez daukat hitzik esateko..." Behin eta berriro errepikatzen du hori Melitak, "ez daukat hitzik esateko". Baina ez du hitzik behar. Entzun nahi ez duenak bakarrik ez du ulertzen.

Han-hemenka barreiatu

Euskal Herrian badaude beste errefuxiatu bosniar batzuk. Gehienak sei hilerako edo etorri ziren, baina orain jarraitu egin behar. Eskoriatzako taldeak ez du arazorik izango horretarako. "Elkartasun demasa izan da bosniarrekin, sei hilabetetan bildutakoarekin, urte osorako daukagu", esplikatzeko digu Nuria Agirrek, 'Deba Garaia Bosniarrekin' taldekoak. Beste errefuxiatu guneak Legazpi, Ordizia, Markina, Mundaka, Amurrio eta Gasteizen daude hegoaldean. Baina garrantzitsuena, Baidarra dago, Nafarroa Beherean, mugaz bestealdean. Bitxienez zera da, hango 100 errefuxiatuak ikusteko aukerarik ez dutela praktikan hemen dauden bosniarrek. Melitak, duela aste batzuk, baimena eskatu zuen Frantzia dituen seme-alabak bisitatzeko, eta mila buelta eman ostean, ukatu egin zioten. Erdi-ekzutuan igaro behar izan zuen muga azkenean.

Aupa Mondra, aurten bai, igoera fasera goaz

Mondrak 3, Bermiok 1.

Oe, oe, oe... aspaldiko par-
tez festa giroa nagusi Atxabal-
pen. Merezi izan zuen bertan
egoteak, sekulako eguraldia lagun,
ze domeka polita. Fondo-
ko musika eta guzti (*Tupary*
taldeari esker), peña gazte bat
eta guzti (zorianak *Txuri-Morei*)...
nahikoa zen puntu bakarra lortzearekin,
baina ez, Divinoren mutilek gogo-
a, kapazitatea, espektakulua,
golak eta garaipena eskaini zuten.

Aupa Mondra, aurten bai!



Inor gutxik espero zezakeen hain urruti iritsiko ginenik.

6 partidutan loteria

Domekan Mungian edozer eginda ere, igoera fasera goaz, Real Union, Bermio eta Touring taldeekin batera.

Mondra beste hiru ekiporekin sartuko da multzo baten: Nafarroako bat, Kantabriako beste bat eta Aragoikoa hirugarrena. Arrasatearrek bi aldiz jokatuko beharko dute bakoitzaren kontra, bat etxean eta beste bat han.

Guztira sei partidu izango dira, beraz, eta laukote horretatik puntu gehien lortzen dituen taldea zuzen igoko da 2. B mailara.

Zorionak

Jose Luis Ezkurra eta konpainia pozez gainezka ikusi ginituen igandean Atxabalpen, makinatxo bat besarkada jaso eta bostekoa barra-barra luzatzen. Atxabalpe inauguratu zenetik bertan ez da hain mo-

mentu politik bizi izan.

Iturripeko garai haiek ahaztuta zeuden, *'Brasil, Brasil'*, *'Mondra a Tercera, Campo de hierba'*, *'Vete y dile al Palmira'* eta guzti hoiek... oroimenean galdutako egunak.

Eta horixe izango litzateke, hain zuzen, aurtengo denboraldiko lorpenik nabarmenena: afizioak ilusioa berreskuratzea, arrasatear askok Atxabalperako bidea ikasi duela horretarako arrazoiak eman zaizkionean, laster gainera.

Talde goleatzaileena

Agian ez gara hirugarren mailako txapeldunak izango, baina ezingo gara gure taldeaz kejaratu. 37 partidutan 60 gol egin dituzte, eta horrenbestez ligako talde goleatzaileena izango da azken ihardunaldian ezer arrarorik gertatzen ez bada behintzat. Aurkakoei 33 gol egin dizgute bakarrik.

Mondrak 15 partidu irabazi ditu, 15 berdindu, eta adi:6 bakarrik galdu. Eta sei horiek azkenak badira, oe, oe, oe...



LABURRAK

Mondrako neskek Kopa eskura dute

Mondrako nesken taldeak inoiz baino aukera hobekitu ditu aurten Gipuzkoako Kopa irabazteko. Igande honetan, finalerdiko lehen kanporaketa izango dute Aretxabaletaren aurka etxean, eta faborito dira Mondrakoak. Izan ere, neskek nahiko talde berria dute Aretxabaletan (2 urte), eta hortaz, Mondrako nesken esperientzia zabalagoa igerri egin beharko da *derby* honetan. Kopako beste finalerdia Dunboa eta Bortziriak taldeen artean izango da. finalera bietako edozein ailegatu arren, arrasatearrek konfidantza osoa daukate euren aukeretan. "Orain daukagun aukera modukorik ez dugu sekula ere izan, ekipoan dagoen moduan Kopa irabaz dezakegu", komentatu digute.

Gimnasia erritmikoan arrakasta

Arrasate Gimnasia Taldeak lehenbiziko aldiz hartu zuen parte txapelketa batean (Gipuzkoakoan) asteburuan, eta ederto egin ere. Kadete mailan, Elena Lanuza 1.a izan zen (landu zituen aparatuak: pelota eta zinta), eta alebin mailan Izaskun Iglesias 2. (soka eta uztai). Beste partehartzaile batzuk Ainara Otamendi, Naiara Saenz eta Amaia Gonzalez izan ziren. Zorionak denei!

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XATHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

PENALTIAK

● **Arrasate-Oñati** lasterketan, partaidetza handia (291 lagun). **Diego Garcia**ren 34'31" errekorretik segundu batera geratu zen **Paco Villameriel** palenciarra. **2. Jose Apalantza** izan zen eta **3. Ramon Jausoro**. Lehen neska, **Uxo Sorazu** getariarra; lehen gaztea **Alberto Garcia**, eta beteroa **Enrike Kabiketa**.

● **Txirindularitzan, Musakola** saria ospatu zen asteburuan (**1. mailako kadeteentzat**): **Almaces Arrasate**-ko **Ibai Guridi** izan zen garailea. **Bestetik, Elgoibarren** jokaturako jubenilentzako froga batean (**90 km**), **Dorletako Ama** taldeko **Joseba Garitanok** irabazi zuen, eta taldeka ere **Dorletako Ama** nagusi.



Motorreroak errege

Batez ere Euskal Herritik, baina Sevilla, Gerona, Valladolid edota Burgosetik ere etorri ziren motorreroak asteburuan herrira. 88tik ez zen antzeko ekintzarik egiten Mondragoen, eta beraz, Arrasate Motozale Elkarteak tradizioa arrakasta handiz berreskuratu duela aipatu behar.

San Isidroak Musakolan, eta festa egitarauaren barruan kokatu zen ekintza hau. Guztira 300 partaide apuntatu ziren, nahikoa eta sobera aurrikusitako milioi bat pezetako aurrekontua betetzeko.

Musakolako konzentrazioan motorreroek denetik egiteko aukera izan zuten. Eroski alboko zelaian kanpina egokitu, eta hor ibili ziren, sekulako espektakulua eman eta San Isidroak ondo gozaten! Eta bitxikeria bat: konzentrazioan apuntaturako motorrero gazteenak zazpi urte zituen.

Pozik zure nesken arrakastarekin?

Ni baino, gehiago eurak, eta ni pozten naiz eurengatik, euren lanak balore bat hartzen duelako. Beti gabiltza entrenatzen, eta agian joan zen urteko lana oraingoan igertzen da, dena da progresiboa. Gipuzkoako txapelketatik orain Euskadikora joango dira. Behintzat hara joan, irteten dena irtengo da. Txapelketan irabazi dutenak onak dira, baina beste batzuk ere badaude, baina suerte txarra eduki zuten. Minutu erdin demostratu behar urte osoko lana, eta orduan, urduri edo, jausi egiten zaie aparatua eta akabo. Taldean, denera, 60 bat neska daude, taldetan banatuta. Atzetik datozeinei ematen diegu inportantzia, txikiei.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 3 - Bermeo 1
 Preferente Araba: Baskonia 1 - San Andres 1
 Jubenilak, ohorezkoa: Mondra 0 - Sporting 1
 Jubenilak, 1. maila: San Andres 4 - Lakua 4
 Jubenilak, 2. maila: Hernani 2 - Arrasate 2
 Kadeteak, 1. maila: Urola 1 - Arrasate 7
 Haurrak: Billabona 1 - Arrasate 1

Hurrengo partiduak

3. maila: Mungia - Mondra. Igandean, 6etan.
 Preferente Araba: San Andres - Mercedes. Igandean, 5.30etan.
 Emakumezkoak: Mondra - Arexabaleta. Igandean, 12etan.
 Jubenilak, ohorezkoa: Beasain - Mondra. Larunbatean, 5etan.
 Jubenilak, 1. maila: San Andres - Corazonistas. Larunbatean, 5etan.
 Kadeteak, 1. maila: Martutene - Arrasate. Igandean, 12etan.
 Haurrak: Arrasate - Bergara. Igandean, 10.30etan.
 Txikiak: Soraluze - Arrasate - Eibartarrak. Larunbatean, 10.30etan.

Saskibaloia

Sub-23: Arrasate - At. San Sebastian (ez zen aurkeztu).
 Jubenilak, mutilak: CD Bergara 49 - Arrasate A 50 (finalerdietara

saillkatuta).

Jubenilak, neskak: Arrasate A 59 - J. Donosti 52
 Kadeteak, neskak: Arrasate A 41 - Amigos del Baloncesto 84

Hurrengo partiduak

Gipuzkoako federazio txapelketako finalerdiak
 Jubenilak, mutilak: Arrasate A - Juven. Igandea, Musakola, 12.15.
 Kadeteak, neskak: Amigos del Baloncesto - Arrasate A. Igandea, Irun, 10.15.

Pelota

Herriarteko txapelketan, eskuz:
 Infantilak: Arrasate 18 - Usurbil 5
 Jubenilak: Arrasate 5 - Usurbil 22
 Nagusiak: Arrasate 22 - Usurbil 14
 Deba Harroko txapelketa:
 Infantilak: Ermua 17 - Arrasate 18
 Jubenilak: Elgoibar 22 - Arrasate 17
 Nagusiak: Elgeta 22 - Arrasate 5

Hurrengo partiduak

Deba Harroko txapelketan, itzulerako partiduak Ermua, Elgoibar eta Elgetaren aurka. Arrasaten, asteartean, 7etan.



ARANTZAZU ZUBIA
Gimnasia erritmikoko entrenatzailea



MITINA

Larunbata 22a eguerdiko 12etan mitina San Viatorreko aretoan

- * Joxe Joan Gonzalez de Txabarri
- * Eli Galdos
- * Joseba Egibar

Osasun-arazoak zahartzaroan (I)

Osasuna Euskalduntzeko Erakundearen III. Ihardunaldi medikoak Gasteizen burutu dira aurten, "Osasun-arazoak zahartzaroan" izanik gai orokorra. Ikuspegi ezberdinetatik aztertu da gaia eta artikulu honetan gauza garrantzitsuenak isladatzen ahaleginduko naiz.

Mende honen hasieran 65 urtetik gorako biztanleak, herritar guztien %5a ziren artean, gaur egun %15 inguruan dagoela eta datozen urteetan gorantz jarraituko dela espero da. Horretaz gain, "zaharren" populazioa artifizialki ari da handitzen, ekoizpen eta produkzio sistemak gero eta populazio gazteagoari ematen baitio status hori. Hogeitamar urtebete arte ikasle eta 50 bete ondoren jubilatu.

Zahartze demografikoa eta ekoizpen sistemaren irrazionaltasuna gizarte politika edo zerbitzu sozialetako gastu publikoa krisian jartzen ari da. Egoera honek sekulako



kezkak sortzen ditu bai politiko eta baita medikuengan ere.

Osasun arazoak

Mediku ikuspegitik esan beharra dago adina, berez, ez dela ez gaixotasuna ez ezintasuna, nahiz eta adina aurrera joan ahala gaitasun funtzioen beherakada gertatu. Behar bada ondorengo organuetan gertatzen da hau gehienbat:

— Sistema kardiobaskularrean: Bihotzaren ahalmena gutxituz doa eta presio arterialaren igoera somatzen da. Honela zaharrek esfortzuak nekez egin ditzakete.

— Sistema lokomotorrean: Hezurren desmineralizazioa eta giharren atrofia aurkitzen da. Adina gora doan heinean, maizago gertatzen dira erorketak eta edozein

momentutan aldaka edo mokor haustura gerta daitezke.

—Nerbio-sisteman: oroi-men gutxitzea, ikusmenaren eta entzumenaren beherakada eta arazo psikologikoak, beste batzuren artean depresioa eta dementzia aipa daitezke.

EUGENIO ITURRIOTZ
(Medikua)

BAINUJANTZIETAN ESPEZIALISTAK

NEREA

Erdiko kale, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 13 43



EUSKAL FAMILIETAN IKASI!!!

*Euskara ikasten
ari zaretenentzako egonaldiak
euskal familietan.*

Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen "Egonaldiak Familia Euskaldunetan" 1993ko plangintzan parte hartu nahi duten ikasleentzako arauak:

- Plangintza 1993ko **uztailetik irailera bitartean** gauzatuko da.
- Ikasle bakoitzaren egonaldia **hilebetekoa** izango da.
- Ikasleek **18tik 35ra urtera** bitarteko adina izan behar dute.
- Parte hartu nahi duten ikasleek **inskripzio fitxa bete** eta

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera bidali behar dute.

Inskripzio fitxa jaso, berriz, bai Udaleko Euskara Zerbitzuan, bai Udal Euskaltegian edo AEKn jaso daitezke.

- Inskripzio fitxa aurkezteko azken eguna **maiatzaren 28a da**.
- Ikasleak **20.000PTA** ordaindu beharko dizkio familiari.
- **Langabetuei erreztasunak** emango zaizkie ordainketa ordaindu ahal izateko.

**Informazio gehiagorako,
jo Udaleko Euskara Zerbitzura – Tfnoa: 79 09 00**



Ospital zaharra, gaur egun.

Ospitaleak eta miserikordiak

Gaur egun, eta 1984 urtean Iturbide egoitza eraiki eta zabaldu zenetik, etxe horrek betetzen du herriko zaharren egoitzaren papera. Hala ere, beste garai batzuetan asko izan dira, antza denez, era ezberdinetako ospitale-zerbitzua eman duten etxeak Mondragoen. Azkena, eta oraindik ere Ospital Zaharra izenez ezagutzen dena, San Frantziskokoa da.

1892an iritsi ziren bertara Mertzendaria Lekaimeak, eta etxe honetan eta bertako

kalistroen inguruan izan da orain hogeitaka urteak arte. Gaixo tuberkulosoak, zaharrak eta etxerik gabeak hartzen ziren, eta horrekin batera, herriko ume askok ikasten zuen bertan, alboan.

Baina guzti hori baino lehen, 1586an ospitaletara egindako bisitaren akta batek jasotzen duenez, honelako hiru etxe zeuden garaitu hartan. Bata Magdalena izenekoa, izen bereko ermitaren aurrealdean. Lazaroren gaitza edo legenarra zuten gaixoak jasotzen ziren bertan.

Arrabalean bertan, bazegoen beste bat ere, Kontzesinoko Adbokazio-koa esaten zena, 1525ean Martin Perez de Urrapai- nek eta haren emazteak, Maria Lopez de Alzatek jarria, herriko ezindu behartsuak jasotzeko egina.

Hirugarrena Perez de Barrutia apaizak jarri zuen Joxe Letonaren hitzetan, 1463ko apirilaren 8ko testamendu bidez emana. Behartsu, erlijioso eta bestelako pertsonen babeserako izan zen sortua, eta bere ondorengoan esku izan zen jabegoa.

SUTONDOAN

ANGEL ABELETXE ETA BITTORIANATXO SORGINA (IX)

S hizean osterera, berdin gabeak ziren, hau egiaz- tatzeko, Zankarroterik gerta- tu zitzaiona edestea bezalako- rik ezer ez: goiz batez, bil- dotsak larratzera zihoala, bide-arro sakon batetik, Le- gazpiar ehiztariak, bost edo sei azkonarrekin zaurituta ze- torren basaurde handi baten aurrean agertu zen. Piztia hau ikustean, sudur-txistuka be- ragana abiatu zen. Estura har- tan gure jentilak, aurre-atze eta ezker-eskuin so egin arren, bere burua aldosteko lain leku ere ez zuen aurkitu eta, or- duan, bere paparreko zurda bat urratuta, eta berarekin egindako kibiztarekin, lehen- go saioan lortu zuen piztiari lepotik heldu eta aidean bue- lta oso bat emanda, handik 60 bat metrora zegoen sasi handi baten erdira bidaltzea, sasiak eranaz.

Handik laster, legazpia- rrak, basurdearen odol-arras- toari jarraika, arnasa-hots ba- ten urreratu zitzaizkion Zankarroteri eta galdetu zio- ten ia basurde bat ikusi zuten handik igarotzen eta honek: Bost edo sei azkonekin zauri- tutako, bitsa ahotik zerion basurde beltz handi bat? A, ez dut,ba, ikusi.

(Jarraituko du)

ARREGITAR TIBURTZIO

“PAL”
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

Erdiko kale. 79 19 37
ILEA
Ferrerias. 79 87 62

IBARRA
Garajea S.L.

EBRO NISSAN
Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua



Ftan bi. 1951ko uztailaren 16a zen, eta elizkizuna Arantzazun izan bazen ere, bazkaria eta ondorengo festa neskaren etxean, Mendietxebarrin izan ziren. Mendietxebarrin, baina etxe zaharrean, kaminoz bestekaldetik. 100 lagunetik gora bildu ei zen egun hartan, eta orduan ohi zenez, txahala hil zuten etxean. Felisa bezala, bere ama eta amandrea ere

On Juakin Alkorta apaizak ezkondu zituen.

Gonbidatuen artean, neskaren lagunak, zutik ezkerretik hasita, **Espe Balanzategi**, **Axun Agirre**, **Pilar Gallastegi**, **Mari Agirre** eta **Kontxita Markaide**.

Eserita, ezkerretik, **Isabel Arriaran**, **Marisol Iturbe**, **Felisa bera**, **Mertxe Arriaran** eta **Maria Arriaran**.

Bazkalosteko erromeria **Felix Ugalde** akordeoilariak alaitu zuen etxe-aurrekaldean eta **Sebastiana Abarrategi**, Felisaren amandrea eta **Bixente Muñoa** aramaixoarra, Miguelen lehengusua, dira dantzan ari direnak. Atzekaldean, **Fabiana Larrañaga**, ezkonberriaren ama, eta beste gonbidatu batzuk.

elisa Ibabe Larrañaga eta **Miguel Lasaga Solaguren** ezkondu ziren eguneko erretratuak dira hauek, baten fal-



Mondeo

M MUGARRI

Mondeo



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Donostian hiru hilebetetarako pisu konpartitu bat behar dut.** Tfnoa: 71 41 21.
- **Arrasaten pisua alokatzen da,** San Andresen. Guztiz jantzita. Tfnoa: 79 85 39.
- **Pisu bat behar da alokatzeko.** Hutsik ba dago hobe. Tfnoa: 77 11 22. Gauez.

Laredon uztailen apartamendua alokatzen da. Hondartza ondoan. Tfnoa: 79 52 80.

Torreviejan (Alicanten) apartamendua alokatzen da ekaina, uztaila eta abuztuan. Hilabete osoetarako edo hamabost egunetarako. 78 14 72.

Lana

- **REM eta OHOk klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 48 09. Itziar.
- **Esperientziadun emakumeak umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- **OHOk zein ingelesezko klase partikularrak ematen dira** (maila guztiak). Tfnoa: 79 45 60. Sonia.
- **Ordenadoreetan lanak egiten dira.** 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maite.
- **Neska gertu dago umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 77 94. M^a Eugenia.
- **Esperientziadun emakumeak etxeko lanak** egin eta umeak eta/edo pertsona nagusiak zain-

duko lituzke. Tfnoa.:77 05 49.

- **Etxeko lanak eta umeak** zaintzeko prest. Tfnoa: 77 01 43. Idoia.
- **Esperientziadun neska** pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Tfnoa:79 72 92. Elena.

Salerosketak

- **Nintendo kontsola, eurokonektorea behar duena, salgai** 6.000 PTAtan. Hainbat joku 3.000-5.000 PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.
- **Seat Panda, SS-0408-S, egoera onean salgai.** Dei egin denda orduetan 79 86 75 tfnora.
- **Bigarren eskuko mobil-home bat erosiko nuke.** Tnoa: 77 04 98.
- **Seat 127, BI-K salgai 40.000.** Dei egin goizez (945) 27 63 39 tfnora.
- **Bost tokiko Adria markako karabana salgai.** Bi urte ditu. Berogailu eta guzti. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 84 55.
- **Nikon argazki makinarentzako duplikatzaile makroa salgai.** Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 77 12 28. Jabiertxo.
- **Egoera onean dauden Razesa markako bi bizikleta salgai.** Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 86 72.
- **Karabana saldu nahi dut.** Adria karabana salgai, 4-5 personentzako, oso egoera onean. Abantzea eta frigorifikoa. Tfnoa. 76 49 14. Gaueko 9etatik aurrera.

- **Vespa motorra SS-V salgai.** Tfnoa: 79 91 41.
- **Opel Corsa City, BI-AK saltzen dut.** Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan 94-620 19 18 tfnora. (Gorka)
- **Barku itxurako ohea, antzinakoa eta antzinako komora salgai.** Tfnoa: 79 93 06. Nati

YAMAHA virago 535, aste barruan; Ferrerias 44, 3. eskuma. Aste bukaeran: Tfnoa: 88 28 63. Aitor.

Denetarik

- **Lasagari esker onez.** Apa Lasaga! Lerro honein bidez Hiru Haundixek hiru egunetan eitten ibili gizenok eskerrak emun gura dotzugu zure kolaboraziñuegatik. Ah! eta Dukieneko Dionik aho bete emungo dotzu gure konture. Portau haiz! Ibiltariok.
- **Apirilaren 18ko goizean, buru marroia eta txuria duen ehiza txakurra galdu zen Larrñion.** Norbaitek ikusi badu, dei egin dezala mesedez 79 93 52 tfnora.
- **Urtebeteko pointer-setter txakurra ematen da.** Noblia eta osasuntsua. Tfnoa: 79 41 49.
- **Identitateko txapa kataiduna galdu da;** Danel izena jartzen du eta 1-5-93 eguna. Arrasateko 79 37 00 telefonora dei egin gaueko 9etatik aurrera, edo ARRASATE PRESSera bertara. Eskertu egingo da.
- **Orloju bat aurkitu dugu Musakolako jaietan.** Zurea bada, dei egin ARRASATE PRESSera.

Aste Gazte

Oporraldiak:

Diputazioak antolatutako egitaraua: a) 14-17 urtekoentzat udalekuak (ingeleza, ingurugiroa, kirolak...) eta kultur bidaiak (Xacobeo, ...). b) 18-29 urtekoentzat abentura-oporraldi eta bidai kulturalak. Toki, data eta prezio ezberdinak. Maiatzaren 28a baino lehen eman izena.

Euskara:

“Egonaldiak Familia Euskaldunetan”. Uda honetan Euskal giroa zuzenean bizi nahi duzuenoi zuzendutako plangintza. Eskabideak maiatzaren 28ra

arte. Egonaldia Euskal Herriko zazpi lurraldeetan izan daiteke.

Lan Praktikak atzerrian:

“Eurodysee” programa. Baldintzak: 18-30 urte, langabetua, ikasketak amaituta izatea (LH II, diplomatura, lizentziatura), frantsesa edo alemanera menperatzea.

Bekak:

Nevada-Reno Unibertsitatean aritzeko bekak. Eskatzailerak: EHUUn ikasten ari diren EGAdunak. Bekarioak euskara klaseak eman eta ingelesekoak

hartu egingo ditu. Dirulaguntza: miloi bat. Epea: ekainak 6.

Lehiaketak:

“Mari Puri Express” Lehiaketak. 14-26 urte bitarteko gazteentzat. Modalitateak: argazki, poesia, kontaketa laburra eta komikia. Epea: ekainak 4.

Zarauzko I. Bideo Lehiaketa. 25 urtetik beherako zaletuentzat. Gaia: paisaiak. Iraupena: 8-15 minutu. Sari bakarra: 40.000 PTA. Epea: ekainak 5.

Rock jaialdia:

Maiatzaren 28an, ostirala, Musakolako Kiroldegian, La Polla Records, Extremoduro eta Malaña.

“Gazteek jakin behar dute mundua aldatzea beren esku dagoela.”

PETER GABRIEL



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Z E R N A H I A G O ?

Juli Hernandez

Eroskiko arraindegikoa

• **Hamarretakoa egiteko ohiturarik?** Beno, ohitura onak ez dira galdu behar, ahal dugunean joaten gara.

• **Lan neketsua duzu?** Ez, niri behintzat asko gustatzen zait, 12 urte lan honetan aritu eta gero...

• **Egunik txarrena?** Ostiral arratsaldeak eta larunbat goizak.

• **Arrainik goxoena?** Rodabailoa, garbitzeko ere lan handienekoa da baina goxoena ere bera da.

• **Euskararen aldeko jaietara joaten zara?** Nahiz eta jaiak gustatu, ez dut denbora gehiegi.

• **Baduzu bizikletarik?** Hemen ez, baina nire gurasoen etxean, Salamancan bai.

• **Noiz egin duzu azkenengo aldiz dantzan?** Pasa den larunbatean.

• **Gimnasiarik egiten duzu?** Ez, gustatu gustatzen zait, baina ez dut denborarik.

• **Noizbait joan zara abokatuarengana?** Ez, orain arte ez behintzat.

• **Ezagutzen dituzu euskal idazleak?** Egia esan ez dut asko irakurtzen eta euskaraz irakurtzeko zailtasunak ditut gainera.

• **Arrainaren usaina gustatzen zaizu?** Hemen lanean nagoenean ez dut igarri ere egiten, baina hemendik kanpo asko eta ez zait gehiegi gustatzen.



BERTSOAK

Basurdeak

Arabatarren izakerataz daude zertaz mintzatuak, bi mila eta bosteun basurde dauzkaten zentzatuak; aberastasun arren jabeak ez dira nola naikuak; negu garaian franko zezina dituzte etxeratuak.

Arabatar azaltzen dira ganadu zale trebeak, goxoki hartzen dakite haiek datozkien abereak; lurralde aura aurkitzen dute kabi ona basurdeak; ori gainera ez diralarik oso patata zaleak.

JOSE MANUEL ARRIOLA.

▪ Bagara, ez gara, goazen Ikastetxe Publikoetara ▪

Arrasateko Batxilergo Institutua

Ikastetxe publikoa 1993-1994 Ikasturtea

IKASKETA ESKAINTZA

Batxilergoko 3 kurtso eta UBI.
Ohizko irakasgaiez gain, aukerakoak honakoak dira:

1.BBB: Frantsesa-Ingelesa

2.BBB: Erljioa-Etika / L.T.P.:

Elikadura, diseinua,
informatika, frantsesa,
kultura klasikoa

3.BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:

A. Zientzia arloa

B. Letra arloa

C. Zientzia-letra arloa

U.B.I.: A. Zientzia-teknologia arloa

B. Arlo biosanitarioa

C. Giza-arloa

D. Linguistika arloa

Datorren urtean

B.O.I. (R.E.M.)

egiteko aukera

AURREINSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 13tik 31ra

Tfnoa: 79 44 47-37

EZAUGARRI OROKORRAK

- Inguruko batxilergo-eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Ordu-tegi trinkoa: goizeko 8.30etatik arratsaldeko 3ak arte
- Eskolaz kanpoko ekintzak: zinema, antzerkia, txangoak, argazkilaritza, kirolak: saskibaloia, igeriketa, ski-astea...

EKIPAMENDUA

Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia eta argazkilaritzako laborategiak, gimnasioa, bideo gela, liburutegia. Kabinete psiko-pedagogikoa.

MATRIKULA DOHAINIK

Arnaldo Patterson

Gorputzaren lenguaia saltsaren bidez

Orain dela 12 urte Kubatik etorri zen bizi izatera. Oiarzunen bizi da, euskaldun batekin ezkondua eta bi seme-alaba ditu. Egungo dantza irakaslea da, baina momentu honetan, saltsa ikastaroak ematen ditu herri desberdinetan; aste honetan Arrasaten.

— Zer ikasten da saltsa ikastaro honetan?

— Beno, hasteko garbi utzi behar da ezinezkoa dela hamabost egunetan saltsa dantzatzeko ikastea. Horregatik, ikastaroan lehendabiziko kontaktua lortzen da. Ia partaide guztiak emakumeak izaten direnez, gauza asko transmititzen duen gorputz bat dutela, barruan dutena kanporatu egin behar dela eta emakume guztiek duten sentsibilitateaz kontzientziatzea dira helburuak. Hemengo emakumeek, klimagatik beharbada, oso ezaugarri desberdinak dituzte Kubakoekin konparatzen baditugu. Kubako klima tropikalak, emakumearen gorputzak transmititu dezakeen exotismoa bultzatzen du. Emakumea oso lotuta dago naturarekin, gizonarekin baino gehiago. Emakumea misterio bat da guretzat, inoiz ez dugulako ezagutu, umeak izateko orduan emakumeak duen



sentsibilitatea, adibidez. Hau da, emakume hauek dantzaren bidez beste kultura bat ezagutzen dute lehendabizi.

— Zergatik ematen dituzu saltsa ikastaroak?

— Beno, ni gaur egungo dantzen irakaslea eta koreografoa naiz baina, beste toki batzutan zezanak eta sevillanak modan

.....

Emakumeak gorputzean duten sentsibilitate bereziaz kontzientziatzea da ikastaro honen helburua eta bide batez, beste kultura bat ezagutzea

dauden bezala, hemen eta momentu honetan, saltsa dago modan. Nire ustez, Espainian azpiegitura bat falta da heziketa mailan. Hau da, umei zergatik ez zaie txiki txikitatik dantzan egiten erakusten? Ez maila profesional batean, baina ezagupen oinarrizkoak, behintzat. Baina, gaur egun guzti hori lortzeko Instituzioen laguntza behar da. Dena dela, nik betidanik dantzan egin izan dut saltsa, bizitzaren filosofia da, Kubako bizitzaren filosofia, nire aitonak, nire aitak saltsa dantzatzeko zuten, beti ezagutu izan dut ohitura hori eta beti egon izan naiz kultura horretan integratuta. Baina, saltsa ikastaro hau modu egokian emateko, oso inportantea da nire entrega irakasle bezala.

— Hona etorri zinenetik hamabi urte pasatu dira, zer egin duzu urte hauetan?

— Nire lanbidea egungo dantza irakastea denez, horretan ibili izan naiz urte askoan, lehendabizi Espainian eta gero atzerriko beste toki batzutan ere bai: Italia, EE BB... Baina nire lanarekin jarraitzeko instituzioen laguntza beharrekoa da, dantza kultura delako eta, maila batean txikitatik ezagutu behar delako.

LABURRAK

San Pedro jaietarako kartel lehiaketa

Eskoriatzako San Pedro jaietarako kartel lehiaketa zabalik dago jadanik. Interesa duen edozeinek har dezake parte lehiaketan. Errespetatu behar den neurria 50x65 izango da. Lanak uztailearen 3a baino lehenago entregatu behar dira Eskoriatzako Kultur Etxean. Ekainaren 3a baino lehen aurkeztu behar dira lanak.

Kanpoko loren lehiaketa

Ibai Arte elkarteak, Arrasateko erdialderako lore lehiaketa antolatuta du. Kanpotik, kaletik ikus daitezkeen lehio, balkoi eta begiratokietan jarritako lore guztiak hartuko dira kontutan. Maiatzaren 13tik uztailearen 10a bitartean jarritako lorak sartuko dira lehiaketa honetan eta uztailearen 10ean ezagutuko dira irabazleak. Sarien artean, lehenak 50.000 PTA eta Parques y Jardines enpresan emandako saria jasoko du. Bigarrenak 25.000 PTA, hirugarrenak 10.000 PTA eta ondoren 5.000 PTAko beste zazpi sari emango dira.

Begoña

lurrindegia

**Drogeria
Jostailuak
Opariak**

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

.....

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

.....

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

ASTRONOMIA

LAGUN BERRI BAT

Esan genuen aurreko artikuluan, Plutoi zela Eguzki sistemaren azken planeta.


Dirudenez joan zen urtean planeta berri bat aurkitu dute. Oso txikia omen da eta guregandik urrun baino urrunago dago. Hori dela eta, ia kasualitatez aurkitu dute, Mauna Kea mendian dagoen teleskopioari esker. Bere dizdira, begiz ikus dezakeguna baino sei miloi aldiz txikiagoa da.

Bere tamainua 200 km'takoa da eta eguzkitik sei mila milio kilometrotara dago (6.000.000.000 Km).

Aurreko artikuluetan erabiltzen genuen eskalarekin, bere tamainua idazki honen puntu batena izango litzateke, eta futbol zelaiaren erdigunetik 9 kilometrotara ibiliz. I kusteko zaila benetan.

Orain arte izenik gabe dago (1992—QB1 deitzen diote), baina aurkitu zuten astronomoek, Smiley izena proposatu dute; John Le Carre-ren erro-matarren espioiaren izena. Izen poetikoagoa behintzat.

ERNEST BORN.



Iñigo Esnaola monitore izango dena, bere saltsan, ordenagailuz inguratuta.

Informatika gela irekiko da laster Monterronen

Monterrongo liburutegiak gehikuntza berezia izango du hemendik gutxira: informatika gela. Liburuak kontsultatzen diren bezala, ordenagailuak kontsultatu eta haiekin lan egiteko aukera eskainiko du zerbitzu honek.

Informatika gela hau, zortzi urte iraun zuen eta abenduan bukatu zen IMI proiektuaren jarraipena izango da. Jaurlaritzaren SPRI erakundearen mende zegoen IMI, baina informatika kalera hurbiltzeko saio hori amaitutzat jo zutenean, udal bakoitzari materiala eskuratzeko aukera eskaini zioten. Horrela sortuko da Monterronen informatika gela, IMIko ordenagailuekin.

Hala ere, IMI baino toki

txikiagoa izango da Informatika gela, 10-12 ordenagailurentzat bezalakoa. Gehienak IBMak izango dira, baina hiru Macintosh ere izango dira, bat berri berria. Arduradun edo monitorea, Iñigo Esnaola gasteiztarra izango da, aurretik IMIn ere ibilitakoa. "Nahi duenak ikasi edo erabiltzeko, eta ideiarik ez daukanari oso oinarritzko ikastaroak emateko" izango da gela, Esnaolak azaltzen digunez.


Berrikuntzen artean, Mac berria eta IBMetarako AutoCAD programa nabarmentzen ditu monitorea. IBMetan, WordPerfect testu-editorea, Lotus kalkulu orria eta DBase artxibategi programa izango dira erabilienak, Windows sistemarekin batera. *Makin-*

tox-etan, PageMaker, Excel, McWrite eta McPaint programak daude, laser inprimagailu berri batekin erabili ahal izango direnak.

Esnaolak zehazten digunez, ez da bideojorik onartuko informatika gelan. "Ez da horretarako tokia, ez da bere helburua, eta gainera, birusak bide horretatik etortzen dira gehienetan". Alde hori, beraz, kontrolatu egingo dute. Oraindik, ez dago zehaztuta nork erabili ahal izango duen gela; bazkide sistema ezarriko da, seguruenik, liburutegian bezala.

Informatika gela ekainean irekiko da. Aurrerago, bideoteka bat gehitu nahi dio Monterroni Udaleko kultura sailak. Hori da hori, *multimedia*.

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71

JOSTEKO



OIHALAK


Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

• AIPUA •

"Gauza onak arrazoi txarreatatik egiten dira beti"


Drew Pearson

• JEROGLIFIKOA •



Gipuzkoako herria.

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Garagartzako baseria. 7. Ur korronte handia. 8. (Ald.) Gar. 9. Margotu. 11. Txori kantariaren janaria. 13. Mineralean. 14. Erdi, hitz elkartuetan. 15. Frai. 17. Hondoratu den untzian zihohan.

Bertikalak 1. Aipu. 2. Ibiltzeko modu berezia. 3. Zapaldu. 4. Apur. 5. Gogokoa. 6. Emakume izena. 10. Artsenikoa. 12. Agur. 15. Ez eme. 16. Zilarra.

• HOROSKOPOA •

Aries

Aldean darabilkizun izerdi usainak euliak ere uxatu egiten ditu.

Taurus

Laster zure maitale maitagarriak adarrak jarriko dizkizu.

Gemini

Zaindu hobeto zure dirua; bestela, laster zenbaki gorrietan geratuko zara.

Cancer

Zeinen ederrak diren egunak zu gabe.

Leo

Mitxelin horiek handituz dihoazkizu.

Virgo

Zure aberastasunek lapurrak erakarriko dituzte.

Libra

Utz itzazu alde batera gogokeriak, badakit barrutik ogi mamia baino bigunagoa zarela eta.

Scorpio

Beharbada betaurrekoen beharra izango duzu.

Sagitarious

Esan al dizu norbaitek astoak baino burugorriagoa zarela?

Aquarius

Ea zure portaera aldatzen den eguraldia aldatzen denean.

Piscis

Orrazkera horrek ez dizu aurpegira batere ongi ematen.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• DIONISIO ARRIZABALAGAREN GOMENDIOA •



Mendian perretxikutan ibiltzea gustatzen zaio Dionisiori, "baina zuzatan ez, zuzalekuek jakin eñ bihedie, eta nik dakittenak danak dakixe, egunez ibiltten naz ta". Mutikotan hasi zen perretxikotan, 60 bat urte bai. "Oiluek basuen geuken eta harei jaten emunaz". Dionisiori gehiago gustatzen zaio batzea jatea baino. Normalean Araba aldeko mendietara joaten da, "andriaz, koñatuaz edo bakarrik, eta bakarrik fandakuen kantzetan da gutxien, noberan aidera". Perretxikorik onena? ondo, eta gibelurdina ere bai.

• KOMIKIA •



Horitz Larrinaga

• PROGRAMAZIOA •



23 Igandea

9.30 Monterock
10 Mondragol

24 Astelehena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondragol
8.8.30.9 Berriak
9.30 Mondra Sport
10.00 Asteko Zinea:
"Nire ama sorgina"

25 Asteartea

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondra Sport
8.8.30.9 Berriak.
9.30 Bakarka
10.00 Asteko Zinea:
"Nire ama sorgina"

26 Asteazkena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bakarka
8.8.30.9 Berriak
9.30 Tertulixan.
10.00 Asteko Zinea:
"Nire ama sorgina"

27 Osteguna

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Tertulixan
8.8.30.9 Berriak
9.30 ATBketan.
10.00 Asteko Zinea:
"Nire ama sorgina"

28 Ostirala

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATBketan
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Monterock.
10.00 Asteko Zinea:
"Nire ama sorgina"

• SOLUZIOAK •

GURUTZEGRAMA
Horizontalak 1. Aizpeka, 7. Iba.
8. Us. 9. Pintatu. 11. Alpitsea. 13.
Mean. 14. Ert. 15. Anai. 17. Naurra-
go.
Bertikalak 1. Aizpamen. 2. Ibilera. 3.
Zanpatu. 4. Pitin. 5. Kuttuna. 6. Usue.
10. As. 12. Adio. 15. Ar. 16. Ag.
Pasata.
JEROGIFIKOA

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

LIPOESKULTURA
eta
ZELULOLIPOLISIA

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Cruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

Monte
taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56



EZ DAGO OPEL CORSA BERRIA BEZALAKORIK



Eros ezazu. Haren estiloa zurearekin bat datorrela ohartzen zarenean. Ekipamendua eta zentzu ekologikoa zuk nahi dituzun berberak direla jakin bezain laster. Zure gustoko bertsioa badela ikusi eta gero, aho batean esango duzu: Opel Corsa Berria nire kotsea da!

Zatoz gaur bertan zeure Opel Kontzesionaritzara eta eskatu zeure Opel Corsa Berria.

OPEL BERRIA
CORSA
NIRE KOTSEA!

MODELOAK: 3 eta 5 ate: SWING, CITY, SPORT, GLS eta GSi.

MOTOREAK: Gasolina Injekziozkoa 1.2 (45 ZP), 1.4 (60 eta 82 ZP) eta Turbodiesela (67 ZP).

BERTSIOAREN ARABERAKO EKIPAMENDUA: Alboak Babesteko Sistema, Segurtasun-hede Autotentsableak, Airbag, ABS, Itxigailu Zentralizatua, Lapurretakontrako Alarma, Leihoak Beheratzeko eta Jasotzeko Sistema Elektrikoa, Norabide-sistema Asistitua, Aldagailu Automatikoa, CFCrik gabeko Aire Egokitua, Eguzkirako Sabaizuloa, Funtzioanitzeko Pantaila, Aire-mikroiragazkia, 6 bozgorailuko Irrati-casete estereo.

OPEL

ZEURE ZAIN GAITUZU

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. Bergara (Gipuzkoa)

ARRASATEKO erakusketa. Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

Deba Bailara, Leniz eta Goierri Garairako Banatzailea.

Urretxuko zerbitzu oficiala:

TALLERES NORTE

Basabe Industrialdea.A-13 Pabiloia. Telefonoa: 79 62 65

OPEL KONTZESIONARITZA OFICIALAK, JAKINTZAREN GAINEAN.